

**K**...eta!  
**Kitto!**

2017-IX-15 1027 zkia.



**CARLOS TRUKO**  
**Trikimailuak patin gainean**

**ONGI ETORRI**  
*euskarara*

**2017-2018 IKASTURTEA**  
**MATRIKULA ZABALIK**  
**Irailaren 26<sup>ra</sup> arte**

- *Ordutegi eta erritmo malguak*
- *Tarifa bereziak*
- *%20, %50 eta %75eko deskontua*

**PORTALEA - Bista Eder, 10 943 70 09 12 [euskaltegia@eibar.eus](mailto:euskaltegia@eibar.eus)**

**Eibarko Udal Euskaltegia**





**DANOBATGROUP**

**GOIMEK S.COOP.**  
HONAKO HAU BEHAR DA  
**FRESATZAILE MANDRINATZAILEA**

**FUNTZIOAK:**

- Fresatzeko makina handien erabilera menperatzea (zubiak, zutabe mugikorrek makinak edo mandrinatzekoak), bai arbastatze eragiketetan eta baita akaberakoetan esperientzia izatea.

**ESKAKIZUNAK:**

- Titulazioa: Goi mailako heziketa zikloa, Mekanizazio Bidezko Produkzioa edo baliokidea.
- Hizkuntzak: Euskara menperatzea.
- Esperientzia zabala antzeko lanpostu batean.
- CNC menperatzea, eta Heindenhain ezagutzea baloratuko da.
- Ekimena.
- Taldean lan egiteko eta harremanetarako gaitasuna
- Egiaztapen tresnak (Alexometroak, mikrometroak etab) erabiltzen jakitea.

**ESKAINTZEN DA:**

- Berehala lanean hastea.
- Esperientziaren eta gaitasunen araberako soldata.

**EPEA: 2017ko irailaren 29a baino lehen.**

Interesa dutenek, Giza Baliabideen Departamentura bidali dezakete beraien Kurrikuluma.

[ecarballo@soraluce.com](mailto:ecarballo@soraluce.com)



**DANOBATGROUP**

**GOIMEK S.COOP.**  
HONAKO HAU BEHAR DA  
**TORNU BERTIKALEKO LANGILEA**

**FUNTZIOAK:**

- Tornu bertikala erabiltzen jakitea, arbastatze eta akaberako eragiketak egiteko.

**ESKAKIZUNAK:**

- Titulazioa: Goi mailako heziketa zikloa, Mekanizazio Bidezko Produkzioa edo baliokidea.
- Hizkuntzak: Euskara menperatzea.
- Esperientzia zabala antzeko lanpostu batean.
- CNC programazioa ezagutzea.
- Ekimena.
- Taldean lan egiteko eta harremanetarako gaitasuna
- Egiaztapen tresnak (Alexometroak, mikrometroak etab) erabiltzen jakitea.

**ESKAINTZEN DA:**

- Berehala lanean hastea.
- Esperientziaren eta gaitasunen araberako soldata.

**EPEA: 2017ko irailearen 29a baino lehen.**

Interesa dutenek, Giza Baliabideen Departamentura bidali dezakete beraien Kurrikuluma.

[ecarballo@soraluce.com](mailto:ecarballo@soraluce.com)

**ARGITARATZAILEA:**  
...eta kitto! Euskara Elkartea.

**HELBIDEA:**  
Urkizu, 11. 20600 Eibar

**TELEFONOAK:**  
943 20 67 76 / 943 20 09 18.

**FAXA:** 943 20 28 72.

**ASTEKARIAREN E-MAILAK:**  
erredakzioa@etakitto.eus  
komunikabideak@etakitto.eus  
publizitatea@etakitto.eus

**ELKARTEAREN E-MAILAK:**  
elkartea@etakitto.eus /  
normalizazioa@etakitto.eus

**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:**  
Ana Aizpuru, Itziar Albizu,  
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi,  
Silbia Hernandez eta Uxue Igarza.

**ADMINISTRAZIOA:**  
Marisol Uriarte.

**KOORDINATZAILEA:**  
Ana Aizpuru.

**ERREDAKZIO-BURUA:**  
Silbia Hernandez.

**DISEINUA ETA  
MAKETAZIOA:** J.L. Gorostegi.

**ARGAZKI ARLOA:**  
Maialen Belaustegi  
eta S. Hernandez.

**HIZKUNTZA ARDURA:**  
Juan Andres Argoitia  
eta M. Aranberri.

**PUBLIZITATEA:**  
Itziar Albizu eta Belen Ulazia.

**TELEFONOA:** 943 20 67 76.

**AZALEKO ARGAZKIA:**  
Carlos Truko

**BANAKETA-ARDURADUNA:**  
Ainhoa Luz.

**TIRADA:** 8.200 ale.

**INPRIMATEGIA:**  
GERTU koop. (Oñati).

**COPYRIGHT-A:** ...eta kitto!

**LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92.  
**ISSN:** 1132 - 1679

(\*...eta kitto!\* ez du bere gain hartzen  
aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien  
erantzunkizunik)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak  
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza  
Politika Sailak diruz lagundutako aldizkaria



EIBARKO  
UDALA



GIPUZKOAKO  
FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA  
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

# eskutitzak

## – JAIA ETA ANIMALIAK ARRATEN ERE –

Zorionez, gizartea, eboluzionatzen ari da eta, pixkanaka bada ere, gu eta gainerako izaki bizidunen arteko elkarbizitza hobetuz doa. Orain dela gutxira arte "normala" iruditzen zitzaigun jaietan animaliak gizakion gozamenerako "erabiltzea", haiek jasan zezaketen sufrimenduz eta heriotzaz arduratu barik. Egiteko dugun bidea, baina, luzea da, iragan lotsagarri hura ahazteko: txahalak xaxatu eta hiltzea, plazan aurrez aurre jarritako ahariekin apustuak egitea, asto-lasterketetan, barre artean, akuilatza erabiltzea, idiak harri astunak eramatera behartzea, usakume bizidunak jomuga gisa erabiltzea, untxi edo txerrikumeak gupidarik gabe jazarzea (Gorritik plazetan jaurti ohi dituenak), etb.

Gutako edozeinek gogoratuko ditu tratu txar horren hamaika adibide. Bada tratu krudel hori defendatzen duenik ere, ohiturak aipatuz edota kultur nortasunarekin lotuz. Sufrizten duen animaliaaren-

ganako enpatia sentitzen dugulako, gure balio etikoaren kontra doalako... arrazoia bat edo beste izan, kontra egin behar dugu. Lege gero eta ausartagoak ateratzen ari dira, animaliak zaindu eta babesten dituztenak. Baina bada alde bat, ia ikusezina dena eta, beraz, gure printzipioak gutxiago ikutzen dituen. Egia da jai baten esentzia ez dela animaliar eragindako min horretan oinarritzen, baina ondorioak antzekoak dira: estresa, mina, gutxiespena, heriotza... tratu txarren osagaiak.

Aurtengo Arrateko jaietan irabazik ez du zergelako diru publikoa horrelako ikintzetarako erabiltzea nahi; ez dugu idiak akuilatu eta harri astunak eramatera behartzea nahi, ez direlako ez araudiak ez habitat- eta espezie-babesaren helburuak betetzen. Beste izaki batzuei minik eragin gabe berdin berdin goza dezakegu jaiekin-eta.

M<sup>o</sup> Jesus Agirre Unzeta (Irabazi Eibar-eko bozeramailea)

OHARRA: ESKUTITZ HAU ARRATEKO JAIEN AURRETIK IRITSI ZITZAIGUN, AURREKO ALEA INPRENTARA BIDLITA ZEGOENEAN.

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

**LLUAK EGIN.**- Lozorroan egon. "Luak eginda gero esnatu nintzan zarata bategaz".

**LUMATU.**- Lumaz bete. "Euri lanbruak txorikumak lumatzia aurreratzen dabela esaten dabe". Lumak kendu. "Hegatzixak lumatzia, zeregin kakia".

Zentzu figuratuan, dirurik gabe utzi. "Kasinora estreñeko zjuan eta ondo lumatuta laga najuek".

## astean esanak

"Ez nator bat aurtin bandera josi duten brodatzaileen aldatzarekin eta nahiago nuke banderak egitearena berriro herritarren esku geratzea. Orain arte, 7 metro eta erdiko ehunean, 10.000 metro hari erabilia, egindako lanak 2.200 euroko kostoa bazuen, 400 orduko eskulana eta materiala barne zirelarik, aurtin ordenagailuz programatutako makina batek 900 eurorengatik egin du. Valentziako enpresa batek egindako bandera askoz ere apalagoa da eta, nire ustez, diruak ez du agindu behar halakoetan"

(ENEKO GOIA, DONOSTIAKO ALKATEA)

"Zorrak itota nago eta giltzurruna salduko nuke", "Medula saltzen dut", "Organoak erosten ditut" eta mota horretako bi milioi iragarki kaleratu zituzten 2012 urtean Mexikon. Organu-transplanteen merkatu beltzaren %8k hartu zuen bide hori, 150.000 dolar mugituz tartean. Hori dela-eta, azken hamar urteotan 30.000 lagunetik gora desagertu da herrialde horretan, eurretako herena baino gehiago 19 urtetik beharagoa. Bertako agintariak organu-trafikoa dagoenik ukatzen badute ere, Antolatutako Delinkuentziaren Ikerketan Espezializatutako Sailak horretan bakarrik egiten du lan"

(HAURTZAROREN ESKUBIDEEN BATZORDEA)

"Beti hitz egiten dugu Mendebaldera etortzeko mugak zeharkatzen dituztenen inguruan, baina badira alderantzizko bidea egiten dutenak, dirua dutelako edo dirua egiteko modua ikusten dutelako bertan: diruak eskaintzen dizkien harrotasunarekin, zorientasun patrioak esportatzera joanak Ekialdera. Hori bai, Mendebaldeak ez du inoiz erru-sentimendurik izango, ez bada bere burua garbitzeko behintzat. Gaur egun deslokalizazioa deitzen duguna kolonialismoaren beste itxura bat besterik ez da. Lurrak okupatzeko ez dituzte ejerzitorik erabiltzen, industria-guneekin nahikoa dute; arrek tiro egin beharrean, kutxa-kontuak erabiltzen dira"

(ANDREA BAJANI, IDAZLEA)



IÑAKI UGARTEBURU

## Gorputza aktibatzen arazoak

**1. Gure osasun fisikoa hobetzeko.** Munduko Osasun Erakundeak agintzen digunez, gure osasuna hobetu egingo da egunero aktibo mantentzen bagara: hemezortzi urte bete bitartean, egunero gutxienez 60 minututan -gehiago bada hobe-; eta hemezortzi urtetik gorakoentzat, astean gutxienez 150 minututan -300era ailegatzeko bagara, hobe-. Era asko dago: oinez, korrika, bizikletaz, igerian, dantzan; eta gutxienez astean behin, intentsitate altuagoko gihar eta hezurak indartzeko ariketak.

**2. Gure osasun mentala hobetzeko.** Jarduera fisikoa edo kirola praktikatzekoan, endorfinak sortzen ditugu, eta erlaxatzen eta zoriontasun-sentsazioa izaten laguntzen digute. Praktikaren ondoren hobeto sentitzen gara.

**3. Jarduera fisikoa edo kirola gehienetan taldean egiten dugunez,** giza harremanak hobetzeko eta sendotzeko baliagarria ere izan daiteke; bakardadea saihesteko, lagunak egiteko, ligatzeko...

**4. Jarduera fisikoak edo kirol praktikak gozatzeko aukera** ematen digu. Kirolak bere baitan gozamen, plazerra izan dezake.

**5. Aisialdi-aukera doanekoa edo oso merkea da.** Ezer ordaindu gabe edo gutxi ordainduta, gure denbora libre arabiltzeko aukera paregabea da.

Egungo gizartean, gure bizimodu konplexu honetan, ez dut uste aukera askorik dagoenik onura gehiago lortzeko hain modu errazean. Hau dela-eta, aktibatu zaitezte!

## Hazilan egitasman izena emoteko epia zabalik

Goi mailako heziketa ziklua edo unibersidade ikasketak amaituta daken 20 eta 44 urte bittarteko langabetueri zuzenduta dagan Hazilan programan izena emoteko epia zabaldu da Debegesa garapen agentziak. Parte hartzera animatzen diranak prestakuntza pertsonalizatua jasoko dabe, beti be biharra topatzia errezteko asmuarekin. Lehen fase batian euren gaitasun personalak eta profesionalak hobetzeko trebakuntza emongo detse, lan mundura sartzia errezteko detsen erremintten bittartez eta, horrekin batera, proiektuen kudeaketa arloko ezagutza eta trebezia landuko dabe, metodologixa barriztatzaillaren bidez. Ondoren, bigarren fase batian enpresetan praktikak egiteko aukeria izango dabe. Programaren laugarren ediziñua urrian hasi eta abenduan amaittuko da. Parte hartu nahi dabenak irailaren 30a baiño lehen emon biharko dabe izena, debegesa.eus webgunian. Hazilan proiektuari buruzko informaziñua emon eta zalantzak argitzeko asmuarekin, Debegesak saio bat eskinduko dau bere egoitzan, irailaren 28xan, 15:00etan. Horrez gain, informaziño osagarrixa eskatzeko 943 82 01 10 telefonora deittu leike edo [www.hazilan.eus](http://www.hazilan.eus) helbidian begiratu.



*da gure herrixan erabat hutsik dagozen etxebizitzaren kopuruaren portzentajia. Bigarren etxebizitzena, bestalde, %0,7. Euskal Herrixan Bakio da nagusi (%51) bigarren etxietan, Donibane-Lohizune, Miarritze, Ziburu eta Hendaiaren aurretik. Lekeitixo %29ra heltzen da eta Zarautz %21era. Etxe hutsetan, bestalde, Orozko da nagusi (%33), Gares, Funes eta Baztanen aurretik. Mutriku %23ra heltzen da.*

## Arrate izenekoak etzi ospatuko dabe urteroko jaixa

Urteroko martxan, aurten be Arrate izenekuen jaixa ospatuko dabe holan deitzen diran andrak. Horren harira egun osorako programia preparau dabe, goizean goizetik hasitta. Ama Birjiñaren pausuen bide zaharretik oiñez igo nahi dabenendako hitzordua 09:00etan izango da, Untzagan. Behin Arratera ailegauta, oiñez doiazenak bestela igo diranekin bat egingo dabe eta alkarrekin egingo dabe hamarretakua, "batez be oiñez igotzen diranak berrindartzeko". Ondoren, 12:30-etan mezia ospatuko dabe santutegixan eta, hortik aurrera, jolasak, bazkarixak eta dantzaldixak beteko dabe egunaren bigarren zatixa. Jaixak 21 urte be-



Udo pasatziatz gaiñera, aurten 21. edizioa ospatuko dabe domekan Arratera igoko diran emakumiak. **Maialen Belaustegi**

teko dittu aurten eta, urteroko moduan, antolatzailliak talde politta batzia espero dabe, "eguraldixa lagun, eguna jai gi-

ro ederrian pasatzeko". Urtetik urtera gorabeherak izaten badi- ra be, 30-50 andrak hartzen dabe parte jaixan.



## Armerixakuen errekonozimendua Barriolari

Armerixa Eskolakuak Abel Barriola pelotarixa omendu eben martitzenian, "Ondo egindako lana" programako 9. saiuan. Joseba Urkiola ETBko kazetarixa solaskide zekala, pelotarixak profesional moduan frontoietan egindako ibilbidiari errepasua emon zetsan eta publikuarekin bere amets eta gogoetak partekatzeko tartia be hartu eban. Armerixako lkasle Ohien Alkartiarene eskutik egin zan ekitaldixarekin, antolatzailliak oin dala gitxi erretiratu dan pelotarixari errekonozimendua egin nahi izan zetsen.

## Erreferenduma babesteko manifestaziñua

Urriaren 1erako Kataluñian deittu daben erreferendumari babesa erakusteko asmuarekin, Gure Esku Dago dinamikak erabagitzeko eskubidiaren aldeko manifestaziñua deittu dau bixarko, Bilbon.

La Casillatik abiatuko da manifestaziñua, 17:30xetan eta Eibartik hara juateko autobusak antolatu ditue. Manifestaziñorako autobusa 16:00etan urtengo da, Ego Gaiñetik, eta izena emoteko orrixak Diana, Guridi, Beleko, Buenos Aires, Kultura, Manuel eta Azkena tabernetan laga ditue.



## autuan

### 1967. URTIAN JAIXOTAKUEN BAZKARIXA

Urriaren 7xan egingo dabe 1967xan jaixotakuen bazkarixa eta, hori antolatzeko, "Asociación Recreativa EIBAR 1967" alkartia sortu dabe. Kide egitteko datu personalak (izen-abizenak, helbidia, jaixoteguna, kontakturako telefonua eta emaila) "EIBAR 1967" Facebook kontuan emon leikez edo, bestela, 1967eibar@gmail.com helbidera bialdu. Bazkarira juateko 90 euro sartu bihar dira Sabadell bankuko ES03 0081 4362 6700 0117 1720 kontu zenbakixan.

### LEGARREKO JAIXAK

Legarreko jaixen harira egingo diran herri bazkarirako txartelen salmenta eta lehiaketetarako (kronoeskillaria eta tortilla txapelketia) izen-emotia zabalik dagoz, Bolintxon, Legarreko fruterixan eta Tarte kafetegixan. Irailaren 19ra arteko epia dago.

**Funeraria-Ehortzetxe Mugica**

**EIBAR**  
Beilatokia  
Funeuskadi Eibar:  
Otaola, 27

**ELGOIBAR**  
Beilatokia:  
SIGMA Industrialdea  
(Olasoko hilerriaren ondoan)

**Bulegoa Eibarko erdialdean**  
Bulegoa Bidebarrieta, 20

**24 orduko zerbitzu iraunkorra**  
943 20 19 51 | www.funeuskadi.com

Euskadiko Lehen Ehortze Taldea | GRUPO Funeuskadi

## 2017/18 EUSKARA IKASTAROAK

**matrikula zabalik**

**aek**

**EUSKALDUNTZE OROKORRA**  
(AURREZ AURREKOA EDO AUTOIKASKUNTZA)

**XEDE BEREZIKO IKASTAROAK**  
(AURREZ AURREKOA)

- B1, B2, C1 (EGA) eta C2 mailak
- Hizkuntza eskakizunak: IVAP, Irale, Osakidetza

### ON LINE

- H-100 (Euskaltzaindiaren arauak)
- H-501 (Testugintza)
- B1, B2, C1 (EGA) eta C2 mailak
- EGA lantzeko zerbitzu osagarriak
- Administrazio idazkiak
- Eskatzailearen neurriko ikastaroen diseinua
- Glotodidaktika

**eibar@aek.eus**

Udalaren laguntzaz  
**BEKA SISTEMA**

Sostoa 1, 1. solairua | Tfnoa: 943 201 379

## kale izena pertsonaiaren izana

### FRAY MARTIN MALLEA


XVI. mendeko erdialdean jaio zen Eibarren. Bere izen osoa Fray Martin Inazio de Loiola zen. Izen hau Loiolako Santuaren iloba zelako zetorkion.

Malleatarrak handikien familiakoak ziren.

Frantziskotar jantziak hartu zituen, eta gazte gaztetatik izan zuen misioetara joateko gogoia.

Horrela, 1581. urtean Ameriketara

joan zen. Gero Asiaruntz jarraitu zuen. Txinan zegoela tortura eta kartzela jasan zituen bere lan erlijiosoarengatik. Askatasuna lortu zuenean etxera itzuli zen 1584an. Handik hiru urtera Txinara bueltatu zen, baina berriro Ameriketara joan behar izan zuen, Mexiko aldera. Bidaia horretan, Pedro de Unamuno kapitainarekin batera California Garaia aurkitu zuen, Sebastian Vizcainok baino zortzi urte lehenago. 1595ean Buenos Airesera joan zen, eta herri horren alde egindako lana oso inportantea izan zen. Clemente VIII Aita Santuak Asunciongo apezpiku izendatu zuen 1601ean. Eskolak bultzatzeaz gain, indioen ebanjelizazioan lan handia egin zuen.




Dibujo Eskolarekin elkarlanean



egilea:

JUAN PEDRO GONZALEZ

1606an hil zen Buenos Airesen. XVI. mendean munduari bi buelta eman zizkion, lehengoa Amerika aldetik eta bigarrena Asia aldetik.



Otto Scharmer Massachusetts-eko Unibertsitateko irakaslia.

## “Massive Open Online Course” formaziñorako saiua

Eibarko Sozialistak jardunaldi berezi bateri ekin dute, “euren inguruan eragin nahi daben eibartarrei horretarako baliabide eta erremintak” eskintzeko asmuarekin. Formaziñorako saiua atzo hasi zittuen eta danera 13 izango dira, eguen arratsaldetan (18:30etik 20:30xetara), “Casa del Pueblo”-n. “Massive Open Online Course MOOC” dalakuari jarraituta garatuko daben programia Massachusetts-eko Unibersidadeko irakaslia dan Otto Scharmer-ek zuzenduko dau eta dinamizatzaillia, barriz, Maria Jose Telleria coach-a izango da. Informaziño gehixago nahi dabenak mjtelleria@tente.eus helbidera idatzitta izango dau horretarako aukeria.



## Ekinguneren pintxo-pote tematikua Iker Fernandezekin

Ekingunek datorren asterako, eguen arratsalderako, pintxo-pote tematikua antolatu dau. Saiuan Iker Fernandez “Abentura Egille” ezagunak 80 minutuko iraupena izango daben “Izan zaitez zure buruaren coach-a bizitzan eta lanean” izenburuko hitzaldixa emongo dau, duan. Ekimen horrek Euskadiko eta Nafarroako hainbat udalerrri ziharkatuko ditte aurtan, “gerturatzin diran guztieri pasiñoz bizitzeko pizgarri izateko helburuarekin”. Izan be, Iker Fernandezen asmua “gizakixon pentsamolde positibua sustatzia eta norbera bere ekimenetan ekitera gonbidatzia

da”. Eibarren emongo daben hitzaldixan, gainera, “Selfcoaching 360° Garpertsonaleko Masterra” proiektua aurkeztuko dabe. Ekitaldixa Armerixa Eskolan izango da, 18:30xetan. Aurkezpena egin eta hitzaldixa emon eta gero, pintxo-potiarekin bat egingo daben eztabaidarako tartia zabalduko dabe. Izena emoteko bide ezberdiñak dagoz: internet bidez, evenbrite.es webgunian hitzaldixari eskindutako atalian, ekingune@ekingune.com edo www.selfcoaching360.com helbidietara idatzitta edo, bestela, 943 208 420 telefono zenbakira deittuta.



## Erretziari lagatzeko laguntasuna

AEEC minbizixaren kontrako alkartiak erretziari laga nahi detsenendako laguntasuna emoten dabela jakinarazi nahi dau. Eibarren bertan banakako zein taldekako terapiak eskintzen dittue, duan, eta saiua horrelako kontuetan aditua dan psikologa batek bideratzen ditte. Baten batek interesa euki ezker, 943 20 24 94 telefonora deittuta edo debabarrena@aecc.es helbidera idatzitta informaziñua jasotzeko aukeria izango dau.

## Armagille Elkartaren 50. urteurren ekitaldixa egin zan Museuan

Eibarko Armagille Elkartaren 50. Urteurrena bete dala eta, eguazten goizian ordezkari politiko askoren partehartzia euki eban ekitaldixa hartu eban Armagintzaren Museua. Iñigo Urkullu lehendakariarekin batera Eusko Jaur-laritzako beste kide batzuk be egon ziran, bestiak beste, Arantxa Tapia Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburua eta Iñaki Arriola Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburua. Horrez gain, ekitaldira gonbidatutakuen artian Bakartxo Tejeria Eusko Legebiltzarreko presidentia, Markel Olano Gipuzkoako diputatu nagusixa, Javier de Andrés Espainiako Gobernuko ordezkari eta Miguel de los Toyos Eibarko alkatia be egon ziran. Lehendakariak egin eban interbenziñuan alkartiak euskal industriari egingdako ekarpena eta egokitzeo erakutsi daben gaitasuna



Erakunde askotako ordezkari politikuak alkartu ziran Museuan eguaztenian, ekitaldixaren harira. **Silbia**

azpimarratu zittuan: *“Erreferentia-entzuek zarie teknologixak artisa-jarduera batian sartzen eta, horretarako, beti be kalidadiarekiko konpromisuari eusten, bereziki zorrotza dan merkatuan”*. Armagille Elkartea oin dala 50 urte sortu eban, armagintzaren sektorean zittuen arazue-

ri aurre egitteko asmuarekin. Urteak aurrera egin ahala, eta hainbat krisi ekonomiko gaintu ondoren, eskualdeko armagintzarako zelaz birrasmatu jakin dau eta, bestiak beste, ekoizpenian teknologixa barrixak txertatu dittu. Horrekin batera, ehiza eta kirol-tirua bezalako

azpisektore barrixetan bidia zabaltzen juateko apustua egin dau alkartiak. Armagille Elkartian dagozen enpresak aurten 1.100 millioi euro fakturatzia espero dabe. Enpresa gehixenak Euskadin, batez be Gipuzkoan dagoz eta milla bat lagunek dihardue biharrian.

## EH Bilduk zerga “justuaguak” izateko proposamenak kaleratu dittu

Zergadun baxotxaren diru-sarreren araberako tasak aplikatzeko eskaeria egin dabe EH Bilduko ordezkariak, beti be Arau Foralak lagatzen daben tarte txixixaren barruko proposamenak eginda. Azaldutakuaren arabera, *“zerga justuenak, zergadun baxotxak bere diru-sarreren arabera ordaintzen dittuanak izango lirakez, baiña Arau Foralak ez dau horretarako tarterik eskintzen”*. Trakziño mekanikoduneko ibilgailuen zergaren inguruan, *“progresibida-*

*de haundixagua”* eskatzen dabe, *“9 zaldi fiskal baiño gitxiago dittuen ibilgailuen zerga jaistia eta 14 zaldi fiskal baiño gehixago dittuenen zerga igotziarekin”* batera. Horrekin batera, 5 plaza edo gehixagoko ibilgailu bakarrarendako, famelixa ugarixak bonifikaziñua jasotzeko aukeria izatia be eskatu dabe. Ondasun Higiezinen gaiñeko zergaren inguruan be hainbat aldaketa egin bihar dirala pentsatzen dabe: *“Hutsik dagozen etxebizitzaren %50eko errekar-gua ez aplikatzeko indarrian dagozen 13 salbuespenak berrikusteko garaia da”*. Eta Kirol Txarteleko tasetan, barriz, abonu barrixa sortzia eskatzen dabe, *“famelixa gurasobakarrak ez baztertzeo”*. Eta proposamenen artian garrantzi haundixa dakan bat azpimarratu nahi dabe: *“OHZ eta Ibilgailuen zergen hobarixetan diru-sarrerak kontuan hartzia”*.



## Jabetze Eskolako ikastaruetan izena emon leike

Iraillaren 29xan amaittuko da Jabetze Eskolako ikastaruetan izena emoteo epia. Urritik aurrera izango dira klasiak eta hainbat gaitan trebatzeko aukeria eskinduko dabe: *“Autoaren oinarrizko ezaguera eta ingurunearen konponketa txikiak”, “Bizitzarako psikologia praktikoa”, “Antzerki-joko ikastaroa”, “Erotismoa eta autoezagutza” eta “Autodefentsa feminista”*. Matrikulia betetzeko Andretxeara zein Pegorara jo leike. Informaziño gehixagorako 943 70 08 28 telefono zenbakira deittu edo andretxea@gmail.com helbidera idatzi.



Aurreko ikasturtean egitasmo berri bati ekin zion ...eta kitto! Euskara Elkarteak: **TXALAN TXALAN bikote linguistikoak**. Ikasturte berri honetan indar gehiagorekin egingo du aurrera, sortuko diren bikoteek sarriago elkartzeko aukera izango dute-eta. Helburu nagusiak berberak dira: Eibarko bizilagunon elkar ezagutza sustatzea eta bikoteen arteko hizkuntza trukaketa.



## Eibarko bizilagunon elkar ezagutzea sustatzen duen proiektu linguistikoa

**Aurreko ikasturteko esperientziaren ondoren**, hastear dagoen honetan ere bikote linguistikoak jarriko dira martxan ...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik eta Eibarko Udaleko Gizartekintza sailaren babesarekin. Miren Barangan egitasmoko koordinatzaile eta dinamizatzailearen esanetan, " *aurreko ikasturtean esperientzia pilotu bezala jarri genuen martxan eta 5 asteko iraupena izan zuen. Balarazioa egin genuenean konturatu ginen jende askok eman zuela izena, baina ezinezkoa zela herritar guztien eskaerari erantzutea. Bestetik, bikoteen arteko esperientzia eta balarazioa guztiz positiboa izan zen; hizkuntza desberdinak praktikatzeko aukera, lagun berriak egin, jatorri desberdinetako zein bertako*

*kulturari buruzko gauzak ezagutu... eta elkarren artean modu naturalean ekintza desberdinak egiteko aukera izan zuten*".

### Astean behin elkartuko dira bikoteak

Ikasturte honetan Eibarko eta beste jatorri batzuetako bizilagunek astean behin elkarrekin egoteko aukera izango dute. Aurrez aurre, bikoteek erabakitzen duten eran bilduko dira, eurek nahi dutena eginez (kafe baten bueltan, pasean...).

Bikoteak sortzeko hainbat gauza hartzen dituzte kontuan antolatzaileek: praktikatu nahi den hizkuntza, adina, motibazioak, zaleatasunak eta norberaren ordutegiak.... Horren arabera elkarriketak egiten dira izena ematen dutenekin eta, ondoren, bikoteak osatzen dituzte. Behin bikoteak osatuta, aurkezpen txoko bat egiten da, bikote guztiak elkarren artean ezagutu daitezten eta norberak bere bikotea ezagutu dezaten. Hortik aurrera, bikotea libreki moldatuko da. " *Dena dela beti ere arduradunarekin harremanetan jartzeko aukera izango dute*".



Ikasturte honetan Ongi Etorri Berbetanekoeekin eta Berbetanekoeekin batera, bikoteek ere ekintza desberdinetan parte hartzeko aukera izango dute (irteerak, tailerrak...), horrela nahi izanez gero.

### INFORMAZIO OROKORRA:

- Izen-emateak: Irailaren 18tik urriaren 5era arte
- Elkarriketak arduradunarekin: Urriaren 13ra arte.
- Bikoteen arteko aurkezpena: Urriaren 19an, 19:00etan ...eta kitto!n.
- Harremanetarako:
  - Emaila: [ongietorri@etakitto.eus](mailto:ongietorri@etakitto.eus)
  - Telefonoa: 943200918
  - Helbidea: Urkizu 11 (solairuartera) Eibar







Kids&Us®

school of english



Ingelesa urte letik aurrera

"BE THE DIRECTOR OF YOUR OWN STORY"

www.kidsandus.es

Kids&Us: ikasi ingelesa ama hizkuntza ikasten den bezalaxe.

**- Zertan da hain berezia zuen METODOLOGIA?**

**Kids&Us Eibar-ek** ama hizkuntza barneratzeko prozesu naturalean oinarritutako metodologia erabiltzen du. Gure ama hizkuntza barneratzean, entzunez hasten gara; ondoren entzuten duguna ulertzen dugu, guzti hori hitzez adieraziz; eta, azkenik, urte batzuk igarotzen direnean, hizkuntza hori irakurtzeko eta idazteko gai gara.

**Kids&Us Eibar** metodoarekin, urtebete egiterako hizkuntza batekin kontaktuan jartzen dira haurrak. Jokoen, ipuinen, abestien edo dantzen bidez, hizkuntzan guztiz murgiltzen dira haurrak, ikasteko duten gaitasun handia ahalik eta gehien aprobetxatzeko helburuarekin.

**Ipsos eta Cambridge Catalunya** azken aldian egindako ikerketak bermatzen ditu gure ikaskuntza sistemaren onurak, metodo tradizionalarekin alderatuz. Ikerketaren arabera, **Kids&Us Eibar-ekin** ingelesa ikasi duten haurrak hiztegi, gramatika, ahoskatze, ahozko eta idatzizko ulermen eta ahozko adierazpen hobeak dituzte.

**- Enpresak mundu osoan zehar 100.000 ikasle dituenen, Eibarren zenbat jaso dituzue?**

Gugan konfidantza jarri dutenen kopuruak ere goruntza egin du eta, gaur egun, **400 inguru** ikasle dira gurekin dihardutenak. Urteik urtera hazten goaz.



Kids&Us®  
school of english *Natural English*

**Kids&Us Eibar** Ego-Gain kalea, 8 20600 Eibar  
T. 688 607 638 [direccion.eibar@kidsandus.es](mailto:direccion.eibar@kidsandus.es)

**- Zuen funtzionamenduaren berri izateko egun aproposenaren aurrean gaudela esan genezake, ezta?**

Zalantza barik. Egia esateko, hemen prest gaude beste edozein egunetan ere jendea hartzeko, baina **zapatu honetan (irailaren 16an) ATE IREKIEN JARDUNALDIA** antolatu dugu. Interesatuak informazio guztia jaso dezaten hitzaldia eskainiko dugu, gure metodologiaren ezaugarriak jakinarazteko, eta, aldi berean, txikiendako prestatutako hainbat aktibitate izango ditugu, ingelesez eskainita. **Goizeko 11:30ean** hasiko da aipatutako jardunaldia.

**- Orain da une egokiena matrikulatzeko, ezta?**

Jakina. Interesatuak aukera ezinhobea dute orain, ikasurte berriaren hasierarekin batera. Gure metodologiari jarraituta eta ikasurte guztia aprobetxatuz, garrantziko aurrepausuak nabarmenduko dituzte epe motzean.



Kids&Us®  
school of english



ENGLISH FOR LIFE



Ingelesa urte letik aurrera

**EZAGUTU GAITZAZU...!!!**

www.kidsandus.es

**Ate Irekien Jardunaldia hilaren 16an (11:30ean)**

## EIBARKO ODOL EMAILEEN ELKARTEA

### Helburuak eta eskaintako zerbitzuak

Eibarren egiten diren odol-ateratzeak antolatzeaz arduratzen da Eibarko odol-emaileen elkarte. 2013tik odol-ateratzeak Eibarko anbulategian egiten dira. Aurretik Pagaegin zeukaten egoitza, baina azpiegiturak ez ziren onenak, neguan odola ateratzera joaten zirenak hotza pasatzen zuten eta, azkenean, lekuz aldatu behar izan zuten. Odol-ateratzeak hamabostero izaten dira, ostegunetan, 18:00etatik 20:00etara, eta aurretik beharrezkoa da goizetik anbulategian bertan jartzen duten zerrenda batean izena ematea. Anbulategiko ordutegia nahiko murriztua da, bi ordu besterik ez dituzte, eta, horregatik, batzuetan, jendea odola eman gabe gelditzen da.

Azken bi urteetan odol-ateratzeak nabarmen jaitsi dira eta batez ere jende gaztearen falta somatzen dute. Hori bai, deialdi bereziak egiten direnean jendeak oso ondo erantzuten duela esaten dute. Herritarrak odola ematera animatu nahi dituzte.

### Ekintza nagusiak

Urriaren 21ean, Unzaga Plaza Hotelean egingo duten bazkarian, omenaldia egingo zaie urteetan odola eman duten boluntarioei. Urtero bezala, 25, 50 eta 75 aldiz odola eman dutenei diploma eta oroigarria banatuko dizkiete Gipuzkoako Odol Emaileen Elkarteko ordezkariak. Ekitaldian Debabarrena osoko odol-emaileek hartuko dute parte eta omendutakoen artean 20 eibartar inguru izango dira.

**Telefonoa:** 943 12 14 98 / 667 77 01 04  
**Kontaktoa:** Jose Maria Lupeña  
 (Gipuzkoako Odol Emaileen Elkarteko delegatua Eibarren)



Urtero diploma eta oroigarria banatzen zaizkie odol-kopuru jakin bat eman dutenei. Argazkia iaz saritutakoak.

## GAUTENA

### Helburuak eta eskaintako zerbitzuak

GAUTENA, Gipuzkoako Autismo Elkarte, irabazi asmorik gabeko elkarte da, eta Autismoaren Espektroko Nahasmena (AEN edo TEA) edota desgaitasun intelektuala eta garapen-desgaitasuna duten pertsonen zerbitzu egokiak eskaintzea du helburu; horretaz gain, autismoak sorrarazten dituen arazoei buruz gizartea informatzeaz eta sentsibilizazteaz ere arduratzen da.

Horretarako zerbitzu desberdinak garatzen ditu: DIAGNOSTIKO eta TRATAMENDU zerbitzua Eibarren eskaintzen da eta bertan TEA duten pertsonen diagnostikoa eta ondorengo interbentzioa egiten da. HEZKUNTZA Zerbitzuak gela egonkorak kudeatzen ditu eta Eibarren ere eskaintzen da. Helduentzako zerbitzuak, EGUNEKO ARRETA eta ETXEBIZITZA, Donostialdean eskaintzen dira, batez ere. Eta azkenik FAMILIENTZAKO LAGUNTZA ZERBITZUA ETA ELKARTE EKINTZAK daude, eta hauek ere Eibarko lokalean eskaintzen dira.

### Ekintza nagusiak

- AISIALDIKO PROGRAMA: Urtean zehar eta udan, aisialdiko programa bat eskaintzen da TEA duten neska-mutilentzat.
- APIRILAREN 2aren inguruan (Autismoaren Sentsibilizaziorako Nazioarteko Eguna) egiten den sentsibilizazio kanpaina.

**Helbidea:** Argatxa, 16  
**Telefonoa:** 943 70 21 16 / 943 21 53 44  
**e-maila:** info@gautena.org  
**webgunea:** www.gautena.org



Gautenak Eibarko Argatxa kalean dituen lokalean hainbat zerbitzu eskaintzen dira.

# Guinness errekorra geurea da!



Eibarren AKEBAI plataformaren ekimenez ekainaren 22an Untzagan osatutako irudi erraldoiak Guinness errekorra ofizialki lortu duela jakin dugu aste honetan, Guinness World Records-ek eskatutako froga edo ebidentziak (argazkiak, filmazioak, lekukoen deklarazioak, kronometratzaileen deklarazioak...) aztertu ondoren, eibartarron Largest transforming human image errekor saiakera ontzat eman du-eta.

**A**ipatutako kategorian errekorra gainditzeko asmoz, AKEBAI plataformak antolatutako ekimenean 2.500 lagunek osatu zuten Untzaga plazan irudi erraldoia. Orduan errekor hori Dubaik zuen, 2.223 lagunekin. Errekorri buruzko jakinarazpen ofiziala jaso barik ere, antolatzaileak pozarren azaldu ziren herritarren erantzuna zela-eta: *"Saiakera horretarako 2.500 lagunek baino gehiagok eman zuten izena, eta 90 elkarte inguruk adierazi zuten atxikimendua ekimenarekin. Egun horretako prestaketan 100 bat lagun aritu ziren lanean fin, dena ondo irten zedin (lurrean irudia marrazten, materiala prestatzen eta banatzen, parte hartzaileei instrukzioak ematen, plazaren inguruko lau sarbideak zaintzen, sarrerak antolatzen, txipak kontrolatzen, jendea leku egokian kokatzen, jarraibideak ematen, kronometratzen...), baina dena gogoz eta irrifartsu. 2.500 parte-hartzaileek, berriz,*

*ondo baino hobeto bete zuten esandakoa. Ikusleak, aurkezleak, kazetariak, argazkilariak... denak primeran!"*.

## Proba eta ebidentzia ugari

Guinness errekorra lortzea ez da bat ere erreza eta, gogotik saiatuta ere, bat baino gehiago marka eskuratu ezinda bidean geratu da. Idoia Argoitiak azaldutakoaren arabera, *"behin ekitaldia amaituta, proba eta ebidentzia batzuk bidali behar izan genituen. Izan ere, erakundetik ez zen epaile edo antzerako figurarik etorri eta, horregatik, egin beharrekoa benetan egin zela baieztatzeko hori erakusten zuten hainbat proba, eurek eskatutako guztiak helarazi behar zitzaizkien. Probak nola jaso eta bidali jakiteko gida bat dago eta, eskatutakoa betetzeko horri jarraitu behar izan genion. Ideia bat egiteko, ebidentziak bidaltzeko urtebeteko epea ematen dute"*.

Epea luzea izan arren, Eibarren AKEBAI plataformakoek argi zuten oporren etenaldia ailegatu aurretik egin beharreko lana zela hori, *"bestela uztaila-abuztuan dena geratu egiten da eta, beraz, ebidentziak lehenbailehen bidaltzeko lanean hasi ginen ekitaldiaren eguna pasatu eta jarraian"*.

Errekorra ontzat emateko eta, beraz, modu ofizialean lortzeko, ekitaldiaren inguruko material grafiko ugari batu behar izan zuten: *"Untzagan prestatu ziren lau sarbideetan kamera fijo bana egon zen, ekitaldiaren hasieratik amaierara den-dena grabatzen eta, hortik kanpora ere ekitaldi osoa grabatzeko, Untzaga plaza osorik eta goitik begiratuta filmatzeko beste kamera bat ipini behar izan genuen. Guinness World Records erakundeak Eibarrera etorri ez baziren ere, egindako guztia unero ikusi nahi zuten eta horregatik eskatu ziguten dena grabatzea"*. Grabazioekin batera, sarrera bakoitzean lekuko inpartzialen bat, Eibarrekin loturarik ez zuen norbait egotea ere eskatu zuten: *"Lekuko horiek lortzeko inguruko herrietara jo genuen, politikoengana, eta horrela bete ahal izan genuen eskakizun hori. Lekukoak ekitaldian egoteaz gain, bakoitzari bere lekukotasuna idatziz bidaltzeko eskaerari ere erantzun behar izan genion"*. Eta ho-

rrekin nahikoa ez zutela eta, teknologiaz ere baliatu ziren plazan zenbat jende eta noiz sartzen zen neurtzeko. Horretarako txipak erabili ziren.

Eskakizun zerrenda, baina, hori baino luzeagoa izan zen: "Ahalik eta argazki gehien bidaltzeko ere eskatu ziguten eta, gainera, argazki horiek erabili ahal izateko baimena ematen zitzaizela ziurtatu behar izan genuen. Argazkiak biltzeko orduan, ekitaldian kamerarekin ibili ziren guztiei egindako lana benetan eskertu behar zaie. Kazetariak, Klub Deportiboko Argazki Taldekoak... egun horretan ikaragarritzko lana egin zuten argazkilariek, den-denaren irudiak hartzen zirela ziurtatzeko".

Osatu beharreko irudiaren inguruan ere hainbat eskakizun betetzea eskatu zuten: "Osatutako irudiaren forma eraldatzeko orduan, mugimendu hori modu naturalean ematen denaren parekoa izatea eskatzen zuten, adibidez. Alde horretatik guk ez genuen aparteko zailtasunik izan, gure logotipoak lore itxura izatean hori nola zabaltzen eta ixten zen irudikatzeak aukera izan genuen-eta. Hala ere, koloreak nola irudikatuko genituen erabakitzeak orduan azken orduko aldaketa egitera derrigortuta ikusi genuen geure burua. Hasieran kartulina batzuk erabiltzeko asmoa genuen eta



*Ekitaldian parte hartzerantz animatu zirenak jai-giroan pasatu zuten arratsalde osoa.*

probak ere horrela egin genituen, baina prozesu osoan gurekin kontaktuan egoteko ipini ziguten lagunaren orde bestekin berba egitean, berak esan zigun ezin genituela kartulinak erabili eta, horregatik, ekitaldia izateko egun batzuk baino falta ez zirenean, kamisetak eta txapelak eskatu behar izan genituen".

Eskakizun asko eta zorrotzak izan arren, baina, denak ondo betetzeko gauza izan garelara, horrekin zalantzarik ez dago, erakunde arduradunak agindutako hitza be-

te eta, 12 asteko epearen barruan, orain dela egun batzuk errekorra ontzat ematen zutela jakinarazi zuen-eta.

Albistea jakin eta berehala, eibartarrok ekainaren 22an sentitutako poz eta emozioak berpiztu dira eta, giro horrekin kutsatuta, gaur iluntzerako emanaldia antolatu dute, "egun horretan bizi izandako uneak gogoratzeko eta emozio hori berriz sentitzeko". Ekitaldian grabatutako bideo eta argazkiak Untzagan proiektatuko dituzte gaur, 20:30ean.



### Erronka handiagoa aurretik

Guinness errekorra lortzea gauza handia izan arren, aurrera begira hori baino erronka handiagoari heldu beharko diogula gogoratzeko komeni da. Izan ere, Argoitiaren berbetan, "errekorra lortu dugula jakiteak poz handia eman badigu ere, ez dugu ahaztu behar azken helburua ez zela Guinnessa lortzea, ekitaldi hori benetako helburura ailegatzeko bitartekoa zela. Hasieratik diogun moduan, ekitaldi honekin 10 urterako euskara planaren berri eman nahi genion jendeari, ekainekoa hemendik aurrera etorriko denaren aurkezpen modukoa izan zen. Horrelako ekitaldia antolatzeko arrazoi nagusienetako bat ahalik eta jende gehienarengana ailegatzeko zen eta,



## Antonio Gonzalez Guerrero

2. URTEURRENA (2015-IX-20)

**"Bi urte pasatu badira ere, gure bihotzetan jarraitzen duzu"**

ETXEKOAK

alde horretatik, asmo hori beteta ikusi dugula uste dugu, herritar gehienek jakin badakite ekitaldi horren atzetik zer dagoen. Bestalde, mosaiko erraldoia osatu ahal izateko jende askoren parte-hartzea beharrezkoa izan da eta, egia esan, herriak primeran erantzun duela begibistakoa da. Era guztietako jendea helburu berbera lortze aldera elkarrekin lan egiteko gauza dela ikusi dugu. Beraz, aurrerantzean ere bide horretan aurrera egitea dagokigu, ume eta gazteen eragileak saretu eta Eibar eskalduntzea lortzeko”.

### Batzarra eratzeko bilera eguaztenean

Ikasturtea abiatu berri dela aprobetxatuta, datorren asterako bilera irekia deitu dute: “Eguaztenean udaletxeko patioan elkartuko gara, AKEBAI Batzarra eratzeko. Batzarra 18:30ean hasi eta 19:30ean amaituko da. Gonbidapena jaso dutenek beste kide bat (bi, hiru...) lasai ekar dezatela argitu nahi dugu, aurretik fitxarik ez badute bete han betetzeko aukera izango da-eta”.



## Gazteak erakartzeko moduko “gantxoak”

Eibarko Udalak 2016-2025 epeadira onartu zuen “Eibarko Hiriaren Euskararen Plan Estrategikoa” planaren helburu nagusia Eibarko herritar, eragile, elkarte eta erakundeak aktibatzea eta sareztatzea da, “10 urteko epean Eibar euskaldunago bat izan dezagun, fokua, batez ere, Eibarko gazte eta haurren eremuan jarrita. Zeregin horretan, eibartar guztiok izan beharko dugu protagonista. Udalak egitasmo hau 10 urtez sustatzeko konpromisoa hartu du, baina hemendik aurrerako lanak eta ardurak eibartar guztionak izango dira. Aukera historiko hori aprobetxatu behar dugu, guztiok bat egin, eta erronka horri eutsiz. Langintza horretan buru belarri inplikatu beharko gara, gehienbat haur eta gazte giroko eragileak”.

Ekainaren 22ko ekitaldiak adin tarte zabaleko herritarrak batzea lortu zuen eta denek, berdin dio zaharra zein gaztea izan, emozio handiarekin gogoratzen dute eguna. Baina planak ume eta gazteengan bereziki eragitea bilatzen duenez, ekitaldian parte hartu zuten gazteetako baten gogoeta jaso nahi izan dugu. 15 urteko **Beñat Laskurainek eguna poztasun handiz gogoratzen duela** kontatu digu: “Herrian urduritasun eta ilusio handia nabari zen aurreko egunetan, horrelako marka bat hausteak antolakuntza eta lan handia eskatzen baitu. Baina egunean bertan dena hain ondo, biribil irten zela ikustean gu ere harrituta geratu ginen. Herri bezala eredu bikaina eman genuen. Era guztietako elkarte, erakunde, talde, abesbatza, kirol klub, alderdi politiko, eskola...denak elkarrekin, helburu baten alde: Guinness errekor bat hautsiz euskararen alde gaudela aldarrikatzea! Han geunden guztiok sentitu genuen une hartan, bakoitzak bere zatitxoa eginez, euskarari laguntzen genbiltzala. Eta hori oso ondo datorkigu egunerokotasunean



Beñat Laskurainek eguna zelan gogoratzen duen kontatu digu.

ere, bakoitzak bere zatitxoa betez guztion artean gauza handiak egin ditzakegula ohartuz, euskararen erabilerarekin gauza bera egin dezakegulako. Ni egun hartan antolakuntzan laguntzen ibili nintzen. Kamiseta txuria zeukatenean ateetako batean “txipak” banatzen eta zenbat sartzen ziren zenbatzen. Horregatik sartzen zen jendea nolakoa zen ikusi ahal izan nuen, eta asko harritu eta aldi berean poztu ninduen gazte asko ikusteak, askotan esaten delako gazteek ez dutela ekintzetan parte hartzen, baina egun horretan hori egia ez dela frogatuta geratu zen. Orain, pare bat hilabete igaro eta gero, azpimarratu nahiko nituzke bai egun horretan ikusi zen aniztasuna, bai eibartarron parte-hartze masiboa euskararen alde. Ordura arte Eibar industria eta footballarengatik zen famatua, baina orain euskararen alde markak hausteagatik ere bada! Baina gogoratu AKEBAI orain hasi berri dela, hau lehen urratsa baino ez dela izan eta benetako lana orain datorrela. Zorionak Eibar, lortu dugu!”.



## IMANOL AGIRREGOMEZKORTA SALABERRIA

(2017ko irailaren 8an hil zen)

**“Urrutirako bidea hartu duzu. Bidaia on izan deizula. Izarren artera iristen zarenean, bidaiguzu argazki bat. Imanol: beti jarraituko duzu gure bihotzetan”** ZURE FAMILIA

**IRTEERA MEZA: HILAREN 17AN, 12:00ETAN, SAN ANDRES PARROKIAN**

Orain dela ia 20 urte probatu zuen patinajea Carlosek eta bere pasioak inoiz baino biziago jarraitzen du gaur egun. Truko da bere ezizena, baina ez dator patinen gainean egiten dituen trikimailuetatik, "txikitan magia eta malabarrak egitea gustatzen zitzaizkidalako deitzen zidaten horrela". Bizitzako filosofia da berarentzat patinajea eta afizioa sortu nahi du. Kaskoarekin eta lagun artean beti, "seguruagoa delako", patin gainean zoriontsua da El Salvadorren jaiotako eibartarra.

**- Ondo joan zaizu azken aldian jokatutako txapelketetan.**

Bai. Calatayudeko National Roller Contestean 4. izan nintzen 30 urtez gorakoen mailan; gero, nire taldeak (Bilbao Bladers Klubak) antolatu dituen lehiaketan artean 1. izan nintzen Artxandan orain dela bi hilabete, eta abuztuan Arrigunagan (Bizkaia) jokatu zen II. Euskadiko Roller Txapelketan 2. postua lortu nuen.

**- Calatayudeko txapelketa Espainiako Ligaren barruan sartzen da. Nola zabiltza bertan?**

Ondo, bigarren postuan. Liga amaitzeko hiru proba falta dira eta garaipenaren lehian nabil.

**- Irabazteko esperantzarekin?**

Bai! Balearetan jokatuko den proban ez naiz arituko, beraz, bi proba geratzen zaiz-



## CARLOS TRUKO

(PATINATZAILEA):

**“Estrategiak garrantzia dauka, ez da patinatzen jakitea bakarrik”**



kit, parkekoak biak, eta parkean jardun dut praktikatzen azken egunotan. Aukerak ditudala uste dut.

**- Zein alde dago parkeko proba izatetik beste probetara?**

Kontua da Ligako proba hauek handiak dira eta, dirua izateaz gain, maila hobeagoko parkeak dituztela. Beraz, biraketak, txiribuelak eta mortalak egiteko arrapalak aurkitzen ditugu bertan. Gainera, nazioarte mailako lehiakideak etortzen dira eta hori oso motibagarria da. Hala ere, toki batetik bestera ohitu egin behar zara aldapetara, ezberdinak izaten direlako. Guk entrenatzen dugun tokian, adibidez, ez daukagu jauziak egiteko aldapa handirik eta antzeko tokiak bilatu behar ditugu jauzi horiek egiteko.

**- Aurretik jakiten duzue toki bakoitzean nolako arrapalak dauden?**

Orokorrean bai. Orensen, adibidez, ez da-

kigu nolakoak diren, aldaketak egin behar zituztela esan zigutelako, baina badakigu ez digutela hutsik egingo, kanpoko profesionalak etorriko direlako. Holandako patinatzaile bat etorriko da, 20 urtetan lehiatzen aritu dena eta beti urrezko dominak lortzen. Izugarria da!

**- Nola garatzen da proba bakoitza? Nola ematen dira puntuak?**

45 segundo irauten du txanda bakoitzak eta bi txanda egiteko eskubidea daukazu. Aurrrera eginez gero, finalera pasatzen zara. Trikimailuen arabera ematen dizkizute puntuak. Beraz, ahalik eta truko gehien egin behar duzu denbora gutxian. Zer egingo duzun aurreikusitako behar duzu lehiatu aurretik. Estrategiak garrantzia handi dauka, ez da patinatzen jakitea soilik. Hori da lehiaketaren alde polita.

**- Ez diozu inprobisazioari tokirik uzten?**

Lehen, momentuan okurrizten zitzaidana

## “Eibarren ume zein nagusiei zuzendutako eskola sortzea polita izango litzateke”

egiten nuen, baina estrategia erabili behar nuela konturatu nintzen. Taldekoekin batzen naiz, parkea ikusi eta zer egin aurreikusten dugu. Ondo irteten zaigu horrela, jende ona dagoelako taldean. Klubak harrobi ona izan du beti, jende gaztea eta oso profesionala, María Muñoz eta Aritz Ortega bezala.

### - *Entrenatzailerik duzue taldean?*

Ez, baina patinatzaile asko patinajearekin zerikusia duten ikasketak egiten ari dira. Azken finean patinajeak eragin handia izan du gure bizitzan. Ni neu argazkilaritzan eta bideo sormenean ari naiz, eta patinajearen eraginez dator hori. “Patinaje-argazkilaritza egingo dut noizbait”, esaten nion nire buruari. Gero, ikusten duzu pentsatzen zenuena baino zailagoa dela, asko mugitu behar zarelako, baina horretan gabilta.

### - *Beraz, patinaje-saioak aprobetxatzen dituzu argazkiak egiteko?*

Bai, baina bideoak batez ere. Bilboko jendearekin ‘Dejavú’ izeneko konpilazioa egin dut.

### - *Patinaje-argazkiekin erakusketarik egin duzu?*

Ez. Kirol mota honetako argazkilaria asko dago, baina argazkilaritzaren munduan beste toki batzuetara jo dut.

### - *Gutxienez zure pasio biak batu dituzu.*

Horrela izaten saiatzen naiz beti. Azken finean bide guztiak toki berean batzen dira, norberak bere bizitza eramaten duen zentzuan.

### - *Noiztik ari zara Bilbao Bladers taldean?*

2015ean sortu genuen. Skateparka egiteko borrokan gaude eta horren harira sortu zen taldea. Instalazio egokiak behar ditugu, aterpean. Hemen euri asko egiten du eta ez daukagu ezer babespean. Galdakaon badago aterpeko parke bat, baina euria egiten duenean lepoz gainezka egoten da. Skateboard



(patinetearekin) egiten dutenek badituzte bi toki aterpean, baina patinekin gabiltzanok ez. Eurek sortu duten zerbait da eta guk ere gauza bera sortu nahi dugu guretzat. Hainbat proiektu ditugu eta onarpenaren zain gaude. Itxura ona dauka. World Roller Gameak izan berri dira, patinajea sartu da bertan lehen aldiz, eta 2019an Bartzelonan egingo dira. Orduan, kirol hau sustatzeko parkea egitea espero dugu.

### - *Zenbaterik osatzen duzue Bilbao Bladers?*

50 baino gehiago gara, 6 edo 7 urteko gazteetatik ia 40 urte dituzten patinatzaileetara. Umeeekin joaten diren gurasoak ere sartzen dira, beraz, familian patinatzen ibiltzen dira asko. Gora doa afizioa. Hilean birritan geratzen gara lehiaketarik ez dagoenean eta, bestela ere, edozein tokitara eraman ahal ditugun moduluak (salto egiteko arrapalak eta abar) ditugu.

### - *Jarduerak antolatzen dituzue?*

Erakustaldiak eta ikastaroak eskaintzen ditugu herrietan, eskoletan... Gainera, Parisen 2024an kirol olimpikoa izan daiteke patinajea, afizioa handia dagoelako Frantzia, eta zita horretan maila ona erakutsiko duten patinatzaileak egon daitezen nahi dugu. Instalakuntzak behar ditugu horretarako.

### - *Taldeko eibartar bakarra zara?*

Alex Gonzalez ere badago, baina azken aldian triatloian dabil buru-belarri. Pello Osoro ere patinatzen aritzen zen eta oso ona da, orain ari den kiroletan bezala!

### - *Patinatzeko afizioa sustatu behar da Eibarren?*

Afizioa sortu egin behar da eta, horretarako, erakustaldiak eta abar egin behar dira, gazteek ikusi dezatela zer den. Jende asko

ikusi dut Eibarren patinatzen eta nire asmoa Eibarren patinaje-eskola sortzea da, baina momentuz Bilbon daukat burua.

### - *Zenbat entrenamendu egiten dituzu astean?*

Parkean hiru aldiz aritzen naiz, baina etxean ere egiten ditut ariketak. Sendoa izan behar zara kolpe guztiak jasateko.

### - *Kolpe asko jaso duzu?*

Haustura asko izan dut: eskuan, orkatiletan, lepauztarian... Urtero baten bat, baina ezin naiz geratu, bizioa da.

### - *Noiz hasi zinen patinatzen?*

1998an. Kalean hasi nintzen eta El Salvadorretik etorri nintzenean parkera pasa nintzen. Orain freestylean hasi naiz. Teknika kontua da dena.

### - *Zuretzat zer da patinatzea?*

Meditatzea bezalakoa da. Eraxatu egiten nau eta egiten dudana horretan zentratzen naiz. Gauzak ondo egin, probatu, lurrera erori eta altxatu. Bizitzeko filosofia da, denerako aplikatzen dudalako.

### - *Baduzu erronkarik patinajearen inguruan?*

Ondo pasatzea eta eredia ezartzea. Orain lehiazten dihardugunok, momenturen batean, txapelketak utzi eta patinatzen jarraituko dugu, eta hemengo jendeak aurrera egiten duela ikustea gustatuko litzauguke. Bidea batera eginez gero, aurrera egingo dugu. Orain dela gutxi El Salvadorreko lagun batekin egin nuen topo Bartzelonan eta hemengo taldeen eredia hara eramateko proiektua garatu dugu. Hango esperimendua ondo badoa, hemen ere sortuko dut zerbait.

### - *Eibarren?*

Bai. Fabrika asko hutsik daude eta toki onak izan daitezke aterpeko parkeak egiteko. Ume zein nagusiei zuzendutako eskola sortzea polita izango litzateke. Gainera, gazteei alternatibak, kirola egiteko aukera berriak eta ohitura osasuntsuak eman behar zaizkie.



“Patinajearen eraginaz nabili argazkilaritza eta bideo sormenaren munduan”

## Izaskun Alberdi (Silenei)

## “Diseinu soilak izatea gustatzen zait, minimalistak”

Izaskun Alberdik beti izan du gustuko marraztea eta unibertitatean biologia ikasi zuen. Silenei proiektuak arlo bi hauek batzen ditu. Naturaren inguruko bere marrazkiak telazko poltsetan islatzen ditu 26 urteko eibartarrak eta diseinu minimalistak eskaintzen ditu moda-osagarri egokiena gainean eramateko. Bere Facebookeko orrian ([facebook.com/sileneisilenei](https://www.facebook.com/sileneisilenei)) ikusi daitezke produktuak eta [sileneisilenei@gmail.com](mailto:sileneisilenei@gmail.com) da bere posta elektronikoa.



### - Nola sortu da Silenei?

Beti gustatu izan zait marraztea, etxean asko marrazten dut. Behin, nik egindako marrazki bat asko gustatu zitzaidan eta horrek pare bat poltsa egitea pentsatu nuen. Poltsa non erosi nuen galdetu zidaten lagunek, oso polita zela, eta nik egindakoa zela esan nien. Orduan, lagun batzuk eskatu zidaten eurei ere poltsa bat egitea. Beste poltsa sorta bat egin eta jendeak galdetzen jarraitu zuen, beraz, zabaltzera eta proiektu hau sortzera animatu nintzen. Beti gustatu izan zaizkit diseinu arloko gauzak, jendeak eskuz landutakoak, gauza bereziak.

### - Noiz hasi zinen proiektuarekin?

Nire poltsa urtarrilean egin nuen eta Facebookeko orria orain dela pare bat aste ireki. Uda hasi aurretik egin nituen lagunen poltsak eta poltsa gehiago saldu nituen gero.

### - Facebookeko orria ireki ondoren igarri duzu sare sozialen eragina?

Bai. Salmenta kopuruan asko ez, baina jende gehiagok ezagutzen du orain Silenei eta marka zabaltzen lagundu dit.

### - Nolako izaten da poltsak sortzeko prozesua?

Lehenik, marrazkia eskuz egiten dut. Gero, ordenagailura pasatzen dut bertan editatzeko (kolorea

eman eta abar). Eta azkenik, enpresa batera bidaltzen dut diseinua poltsan inprimatzeko. Beste alde batetik, etiketak egin eta poltsan plantatzen ditut. Poltsen materiala eta forma aukeratzeko orduan ere aukera asko daude, baina nik eskuleku luzekoak erabiltzen ditut, erosogokoak direlako. Koloreari dagokionez, grisak eta beixak ditut, baina aukera gehiago dago. Diseinu soilak izatea gustatzen zait, minimalistak. Batzuk koloreak dituzte, beste batzuk beltzean doaz, baina poltsak moda-osagarriak direnez, ez dira oso diseinu kargatuak.

### - Biologia ikasi duzu. Eragina izan du horrek proiektu honetan?

Bai, nire marrazki gehienek naturarekin zerikusia daukate. Animalia eta landareak gehien bat orain, baina denetarik landu nahi dut. Diseinu batzuk ditut orain, eta horiek saltzean diseinu berriak egin eta ateratzen joango naiz. Horrela, ezberdintasuna bilatu nahi dut, poltsa guztiak berdinak ez izatea.

### - Poltsez gain beste produktu mota batzuk egiteko asmorik bai?

Bai. Jendea kamisetak eskatzen hasi zait, baina momentuz poltsekin jarraituko dut. Gero, pixkanaka gauza berrietan sartzen joateko asmoa daukat.

[www.kolorlan.com](http://www.kolorlan.com)

667 54 89 16

**KOLORLAN**  
PINTURA LANAK S.L

**Radio Eibar**  
CADENA  
**SER**  
104,0 FM

**Izadi**  
LORADENDA  
- Lora eta landare natural eta lehorrak  
- Ezkontzetarako lorak  
San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29




## GazteRobotikak beteko du Astelenako kantxa irailaren 23an

Irailaren 23an Euskadiko I. Hezkuntza Robotika Txapelketa egingo da Eibarren, Astelena frontoian, Eibarko udaleko Garapen Ekonomikorako sailaren ekimenez. **GazteRobotika** egitasmoari lotuta lehenengoz egingo den txapelketa robotikaren eta teknologia berrien inguruko topaketa izatea nahi dute antolatzaileek: *“Eskola adineko haur eta gazteak, 8 eta 16 urte bitartekoak motibatzea da helburua, robotika eta programazio arloan lehen urratsak eman ditzaten. Horrekin batera, txapelketaren aitzakiarekin talde-lana eta arazoaren ebazpena ere landu nahi ditugu”*. Ekitaldia Euskadi osoko gazteendako antolatuko dute eta doakoa izango da.

Astelena frontoia hartuko duen ekitaldian hainbat atal eta gune bereiziko dituzte: robotika txapelketa, “scratch” txapelketa, ordenagailu gunea, 3D gunea, erakustaldi gunea, droneak... Robotika txapelketan lau kategoriatan lehiatzeko aukera izango da (Sumo Combat, Oztopo Lasterketa, Pilota Jaurtiketa eta Kubo Pilaketa), *“norberak bere gaitasun eta gustoen arabera erroka aukeratu dezan”*.

Scratch txapelketa, berriz, bideojokoak eta programazioa gustoko dituztenentzat erakargarria izan daitekeela uste dute antolatzaileek: *“Gazteek euren proiektu propioa hasieratik garatu nahi badute, irudimena askatasun osoz erabiltzeko aukera paregabea izango dute hemen. Izan ere, parte hartzen*



**SUMO  
Combat**



**Kubo  
PILAKETA**



**Oztopo  
LASTERKETA**



**Pilota  
JAURTIKETA**



*dutenei 2 ordu eta erdi emango zaie egunean bertan azalduko den gai batekin lotutako bideojoko bat sortzeko. Joko guztiak Scratch plataforman sortuko ditugu”*.

Horrez gain, ordenagailu gunean bideojokoak sortzeko Kodu, Minecraft, Scratch eta Unity bezalako tresnak probatzeko aukera izango da, *“3D gunean gazteek diseinatu eta inprimitzeko tarte izango dute, erakustaldi gunean robotak ariketa zailak nola burutzen dituzten erakutsiko dugu eta, nahi izanez gero, foballean jokatzen duten robotei aginduak ematen lagako diegu animatzen direnei, drone txiki bat nola diseinatu eta muntatzen den ikusi ahal izango da...”*. Eta, topaketaren aitzakiarekin, ikastetxeek, enpresek eta zentro teknologikoei beraien zientzia eta teknologia proiektu praktikoak aurkezteko gunea ere egongo da. Euskadiko I. Hezkuntza Robotika Txapelketari buruzko informazio guztia gazterobotika.eus helbidean aurkituko duzue eta txapelketetan parte hartzeko izen-ematea ere helbide horretan egin daiteke.

**Oñatin Kilometroak irailaren 24an**

**Lekaixoka!**  
KILOMETROAK 2017 OÑATI

**AUTOBUS ZERBITZUA**

**8€**

**IRTEERA**  
09:30ean  
Ego-Gainetik

**BUELTA**  
19:00etan  
Oñatitik

J.A. Mogel Ikastolako Gurasoen Elkarte / ...eta kitto! Euskara Elkarte

**centro médico eibar**

**URKIZU PASEALEKUA, 13**  
Orbeako dorreak / 1. solairua  
☎ 943 12 02 00 Faxa: 943 12 02 04

1) Kardiologia	11) Barne Medikuntza
2) Zirugia	12) Radiologia
3) Dermatologia	13) Urologia
4) Dietetika / Nutrizioa	14) Traumatologia
5) Análisi Klinikoak	15) Koloproktologia
6) Ortodontzia	16) Erizaintza
7) Otorrinolaringologia	17) Foto-depilazio
8) Pediatria	Unitatea
9) Psikiatria	18) Ginekologia <b>BERRIA</b>
10) Neurologia	19) Psikologia <b>BERRIA</b>

## Algak (II)

Badaude beste hainbat alga, nahiz eta Galizian halakorik egon ez, euren ezaugarriengatik asko erabiltzen direnak:

**Arame:** emakumeen ugaltze-aparatuko arazoak tratatzeko oso ona da, sistema kardiobaskularren elastikotasunean laguntzen du, proteinetan aberatsa da, baita kaltzio eta burdinean ere. Kantitateari dagokionez, astean bi koilarakada jatea nahikoa da.

**Hizikia:** Mineraletan oso aberatsa da %34 izan dezake. Esneak baino 14 aldiz kaltzio gehiago dauka. Haragi gorriak baino 8 aldiz burdin gehiago dauka. Kolesterolak jaisteko eta diabetikoentzat azukre maila orekatzeko lagungarria. Ile zuriak ekiditeko aproposa. Alga hau jateko orduan, olio pixkatekin hartzea gomendatzen da. Kantitateari dagokionez, astean bi koilarakada jatea nahikoa da.

**Chlorella:** alga hau, kapsula eran hartzen da. Klorofila ugari dauka eta daukan propietate guztietatik aipagarriena, metal astunak kanporatzen laguntzen digula da.

**Spirulina:** kapsula edo hauts eran hartzen den alga honen ezaugarri nabarmenena, proteinatan aberatsa dela da. Odo-la, giltzurrunak eta gibela garbitzen laguntzen digu. Beraz, animatu eta aprobeitza ditzagun itxasoko barazki aberats hauek eskaintzen dizkiguten onurak.



jaione yeregi  
TEKNIKARIA DIETETIKA  
ETA NUTRIZIOAN

Alga	Aberastasuna	Gordinik	Egosita	Frijituta	Laban	Gisatuta
<b>Nori:</b>	Proteinak, Bitamina, B12	Entsaladatan, <b>20 minutu beratzen.</b>	Arrozetan, zopetan, cuscusakin, barazkiekin, 3 minutuz txigortu. <b>20 min. egosiz.</b>	Tortilletan. kroketetan, hanburgesetan.	Txigortuta, entsalada, eta egosien gainean haustuta, gainerreetan, patatetan, arrainetan	Lapikokoetan
<b>Agar agar malutak:</b>	Zuntz betegarria Heste leungarria.		Gelatina eta saltsa lodigarri gisa, flanetan, marmeladetan kremetan, arraultza- ordezko <b>8 minutu.</b>		Tarta gozo eta gazietan, barazki tartetan, arraultza-ordezko gisa.	

## Ahaztu handia

**Irailaren 10ean Suizidioaren Prebentzioaren Nazioarteko Eguna izan zen.** Prebentzio eta esku-hartze neurriak hartzeko beharrekiko kontzientziazioa handitzeko egun aproposa.

OME-ren hitzetan suizidioa bizitza kentzeko nahita egindako akzioa da. Nolabait, azkeneko jokabidera murrizten dugu, baina honen sufrimenduzko istorio bat dakar berekin, zeinean isilune eta pertsonaren barneko isolamendua dagoen.

EAEn bi egunez behin suizidio bat gertatzen da. Kanpo heriotzetatik lehenengo kausa izanik, auto istripuen hildakoak bikoizten ditu. Hala eta guztiz ere, ahaztu handia izaten jarraitzen du. Errealitate hau prebenitzeko eta lan egiteko bidea esku-hartze komunitarioa izan arren, suizidioaren inguruan tabu eta beldur soziala nabarmentzen da.

Komunitate mailan beharrezkoa da ikusgai egitea, mitoak eta tabuak argitzea, eragile sozial ezberdinen eskutik prebentzioan lan egitea; guraso, irakasle, lehen mailako osasuna, adimen osasuna... Kutsatze efektua **lehenengo mitoa** izan arren, isilunea da hiltzen duena. Horregatik errespetu osoz errealitatea ikusgai egitea garrantzitsua da.

Atentzio deia **bigarren mitoa** da. Norbaitek bere buruaz beste egiteko asmoa azalarazten duenean, sufrimendua daukalako izaten da, eta horrek serio egindako laguntza deia moduan hartzea merezi du.

**Hirugarren mitoa** hauxe da: pertsonak era zaballean benetako asmorik ez dagoela azaltzen duenean.



Hiru mito horiek akzioarekin daude lotuta, baina ez da aipatzen ez prozesua ezta zelan iritsi diren pertsona horiek egoera horretara ere, eta haien beharrak asetzeko zer behar izan duten. Osasuneko, heziketako, zerbitzu sozialetako profesionalak bizi itxaropenari eusteko premiazoak diren beharren gainean lan egiteko erantzukizuna daukagu. Hau da, Prebentzioan lan egitekoa.

Adierazpen emozionalaren heziketan, behar erlazionaletan, ume eta nerabeentzako autoestimuluetan, drogen eta alkohol kontsumoaren prebentzioan, gurasoen eskolan atxikimendu zurrak bultzatzeko lanetan... eta osasuna bermatzen duten hainbeste programetan.

Euskarria oso garrantzitsua da. Izan ere, bizipen traumatiko bat trauma bilakatze prozesuan oso nabaria da euskarri ez izatea. Edozein kasutan nabarmendu behar da, norbaiten kezka kontaktua sentitzearen garrantzia, arreta sensiblea jasotzea posible izatea, bere sufrimenduaren balorazioa, eta profesional baten laguntza izatea. Itxaropenaren telefonoak premia duen edozein pertsonarentzako linea bat du eskuragarri: 717003717




arrate garitaonandia  
PSIKOLOGO/PSIKOTERAPEUTA

# KITTONBOLIA



## Eguraldia lagun, sari mordoan banatu ziren Kittonbolan



Arrateko amak eguraldi bikaina ekarri digu aurten eta, horri esker, jendez inguratuta zortea banatzen pasa genuen eguna Kittonbolan egon ginenok. Eta gustora egon ginen, gainera, zuen alaitasuna, konplizitatea eta ilusio aurpegiak ikusita.

10:00etan ireki zituen ateak Kittonboliak, eta egun osoan, etenaldirik gabe, jardun genuen lanean. Mila esker eibartar guztiei urtero Arrateko Amaren egunean ematen diguzuen laguntzarengatik. Egunerokotasunari aurre egiteko indarra eta motorea zuek zarete, zalantzarik gabe.

Eta eskerrik asko, nola ez, Kittonbolako opari mordo hori osatzen lagundu diguzuen denda, elkarte, enpresa eta erakunde guztiei. Zuen laguntzarik gabe ezinezkoa izango litzateke Arrateko tonbola antolatzea.

Bihotzez, mila esker guztioi. Ziur gaude datorren urtean ere, 2018ko Arrateetan, elkar ikusiko dugula.

**Arrate egunean euro baten truke  
opariarekin etxera bueltatzeko  
aukera izan duzue aurten ere.  
Eskerrik asko parte hartu duzuen  
denda eta enpresa guztioi!!!**



**ANTOLATZAILEA:**

...eta kitto! Euskara Elkartea

**LAGUNTZAILEAK:**

- ...eta kitto!
- +X- harategia
- Akara
- Ansa bitxitegia
- Aratatto
- Arregi-Dominguez arraindegia
- Artola jatetxea
- Askasibar
- Aspe
- Astelena taberna
- Athletic Club
- Avia Amaña gasolindegia
- Avia Azitain gasolindegia
- Azitain erretegia
- Azpiri jostundegia
- Azpiri saneamenduak
- Baglietto
- Benicoba
- Burbujas y Mas
- Capi
- Closet
- Dandara
- Dirdai
- Ditare
- Divina Valentina
- Domeinua.eus
- Eguren
- Eibar Eskubaloia
- Eibar Kirol Elkartea / SD Eibar
- Eibar Motor
- Eibar Rugby Taldea
- Eibar Sasoian  
*Maider Carrasco*

- Eibar Sasoian  
*Isasi Masajeak*
- Eibar Sasoian *Akorde*
- Eibar Sasoian *Ane Campos*
- Eibar Sasoian *Filt Corpore*



- Eibarbus
- Eibarko Txirrindulari Elkartea
- Eibarko Udala (Kultura)



- El Canton de la Avenida



- El Corte Ingles



- El Jardin de Tulipa
- El Vestidor
- Emankor



- Eroski Eibar Hipermerkatua
- Eskarne
- Esther Galarza
- Estaziño 16
- Farmalur
- Garbibox
- Genoveva arraindegia
- Gerritek



# ESKERRIK ASKO

## parte hartu

## duzuen denoi!!!

- Gratzina
- Guby mutilak
- Guby neskak
- Gustatzen Jata
- Homme
- Hotel Unzaga Plaza
- Idioa Bergaretxe Spa
- Ikusimakusi
- Industrias G. Arizaga
- Industrias Mail
- Iñaki Harategia
- Ipur Sagardotegia
- Irritsa
- Itxesi
- Izadi
- Izane
- Jauregi
- Jaz Zubiaurre
- Jeronimo
- Jorge Vega
- K2
- Kantabria Jatetxea
- Kantoi Gasolindegia
- Kenay estetika
- Kerala
- Ketesa
- Khol ileapaindegia
- Kinkila
- Kokein
- Kontent
- Kopina
- Kresala arraindegia
- Kultu taberna
- Klauss
- Lacuesta optika


### • Laboral Kutxa



- Lakett
- Leder
- Lolos
- Look
- Luis del Rey
- Mamacas
- Marian Idoia Spa
- Marsi
- Mas Que Wapos
- Meka-Hotel
- Mertxe gazta eta txerrikiak
- Mugika harategia
- Muma
- Natural
- Neure
- No Comment
- Oberena harategia
- Oroz Exclusivas S.L.
- Otegi harategia
- Pirritx eta Porrotx



### • Pitxiak



- Publi-Resa
- Salaberria
- San Andres gozotegia
- Sosola baserria
- Styling
- Su ta Gar
- Sutondo Isasi
- Sutondo Labaderokua
- Tribeka
- Twins
- Txutxufletas
- Ulmar
- Umea
- Urdanibia
- Urkotronik
- Valenciaga
- Yraolagoitia
- Zorionak Kid's and Party
- Zubi Gain
- Zurkulu

**Maialen  
Belaustegik  
ateratako  
argazki gehiago  
etakitto.eus**



**Prozesioaren hasiera**



**Gurutzean**



**Flashmob**



**Arrateko Amaren dantzak**



**Skakeitan**



**Luhartz**





Dantza Solte Txapelketa



Trikitilariak



Narbaizari omenaldia



Herri-kirolak



Bertso-afaria



Arkada Social



Eraso!



Jose Antonio Alberdi eta Maite Markuerkiaga, kamiseta batzuk aurrean dituztela.  
Ekhi Belar

# Foballeko izarren kamisetak AMAÑAKO JAIEN ALDE

Amañako Jaiek 40 urte beteko dituzte datorren urtean. Data borobila, baina arriskuan dagoena. Izan ere, Amañako Jaien Batzordeak 40.000 euro inguruko zorra dauka SGAErekin (Egile eta Argitaratzaileen Elkarte Orokorra), jaiekin aurrera jotzeko arazo bat baino gehiago sor dezakeen zama. Zorra ordaindu eta herriko festa garrantzitsu hauek ospatzen jarraitzeko asmoz, **Maite Markuerkiagak** ekimen bat jarri du martxan: foballeko jokalariek famatuen kamiseten zozketa.

**C**ristiano Ronaldo, Antoine Griezmann, Markel Susaeta, Xabi Alonso, Marco Verratti, Takashi Inui eta beste hainbat foballariaren kamisetak eskuratzeko aukera egongo da bihartik aurrera, irailaren 16a. Elkarrizketa egin zen egunean (irailaren 7an) 171 sari zituen batuta Markuerkiagak, *"baina zozketa hasten denerako espero dugu 180 lortzea"*. Sari gehienak foballariaren kamisetak dira, *"euretako gehienak sinatutakoak"*, baina baloiak, jertseak eta bestelako kirol-materiala ere zozketatuko da.

Zozketari hasiera emateko 70 maniki jarriko dira Untzagan, *"harmailak dauden aldean"*, eta jokalariek baten kamiseta eramango du sari bakoitzak. Hortik aurrera Untzagako jubilatuek etxeak kamiseten erakusketa jasoko du azaroaren 19ra arte (ba-

rixakuetan 19:30-21:30, eta zapatu eta domeketan 10:00-14:00) eta 30ean, San Andres egunean, zozketa egingo da notarioaren aurrean.

Sariak lortzeko erosi behar diren txartelak 2,5 euro balio dute, *"eta bi zenbaki jasoko ditu bakoitzak"*. Txartelak Koxkor, Kultu, Kontent eta Ongi Etorri tabernetan salduko dira, eta 16.000 txartel saldu beharko dira 40.000 euroko zorra ordaindu ahal izateko. *"SGAEri 30.000 euro inguru zor zaizkio, baina gero Ogasunarekin zerga kitatu behar da, abokatuari ordaindu behar zaio eta antolakuntza gastuak ere kontuan hartu behar dira"*, azaldu zigun Markuerkiagak, *"eta dirua soberan badago, Amañako Jai Batzordeari emango diogu"*.

*"Jose Antonio Alberdi 'Goma' oso lagun dudalako eta Amañako Jaiek aurrera*



*egin dezatela gustatuko litzaidakeelako* jarri du martxan ekimen hau Markuerkiagak, SGAEn aurkako ezer ez dela argi utziz. Orain dela urtebete hasi zen ekimenarekin eta eskerrak eman nahi dizkie kamisetak lortzen lagundu dioten guztiei, *"asko izan dira-eta"*. Markuerkiaga pozik dago ekimenak foballari eta kirolarien artean izan duen harrerarekin, eta espero du eibartarrek ere berdin hartzea.

### Susaeta, Alonso eta Cristiano

Markel Susaetaren kamiseta izan zen lortu zuen lehena, *"famiლიakoa da-eta"*, eta foballari eibartarrak beste bost lortu zituen. *"Jon Errasti ere lehen minututik egon da laguntzeko prest, eta Raul Navas bikain portatu da, pertsona zoragarria da"*. Eibarren bizi bada ere, ondarroarra da Markuerkiaga eta Iñigo Martinez bere herrikideren kamiseta lortzea ez zitzaion asko kostatu, *"eta Illarramendi mutrikuarra ere hasieratik egon da laguntzeko prest"*.

Juan Luis Mardarasek paper garrantzitsua izan du ekimenean. *"Euskal Selektzioaren kamiseta berehala lortu zuen eta, Periko Alonsoren laguna izanik, Xabi Alonso bere semearena lortuko ahal zuen eskatu nion"*. Esan eta egin. *"Gainera, Munichera joan eta, kasualitatez, aireportuan Periko eta emaztearekin egin nuen topo. Xabi etortzekoa zela esan zidaten eta baloi bi erosi nituen berak sinatzeko"*. Baloi horiek ere zozketan egongo dira.

Alonsoren taldekide izandako Cristiano Ronaldoren kamiseta ere zozketaren barruan egongo da. *"Ramon Agirregomez-korta Real Madrileko zuzendaritzako kide baten ezaguna da eta faborea eskatu nion... eta Real Madrilekoek sinatutako bi baloi ere lortu zituen!"*.



Markel Susaetaren kamisetarekin hasi zuen bilduma Maite Markuerkiagak.

### Han eta hemengo kamisetak

Azti portugaldarra, hala ere, ez da izango mundu mailako izar bakarra Untzagan, Paris Saint Germaineko Marco Verratti eta Atletico Madrileko Fernando Torres eta Antoine Griezmannek ere bere kamisetak utzi dituztelako Amañako Jaiei mesedetan. *"Griezmannen kamiseta Jose Eulogio Garate eibartarraren arrebaren bitartez lortu dut eta Torrese-na Madrilgo lagun baten bitartez"*. Horrez gain, Alaves (UEFAko finaleko kamiseta), Paraguai (Justo Villar atezainarena), Betis (bi kamiseta), Benfica (Bebé), Glasgowko Celtic (Donnelly, Boerrigter eta Boyaka), Vigoko Celta (Marcelo Díaz), Chelsea, A Coruña (Lucas Pérez), Getafe, Granada, Leganés, Las Palmas, Leeds, Málaga, Sevilla (Cicinho, Mariano eta Ganso), Valentzia (Barragán, Roberto, Rodrigo, Siqueira eta Danilo), Vila-real (Cani), Alanyaspor eta Wigan Athletic (Bramble) taldeen kamisetak ere zozketatuko dira, besteak beste.

Mandiola Lagunartearen kide, Eibar K.E.-ko kideekin eta bertatik pasatu direnekin harremana dauka Markuerkiagak. *"Takashi Inuiren Japoniako selektzioaren kamiseta lortu dut; Eibarren ibilitako Josip Radosevick Red Bull Salzburgen kamiseta utzi zidan Salzburgeko jatetxe batean eta, aukera aprobeztatuz, San Agustin elizako apaizari oparia utzi zion, elizarara asko joaten zelako eta laguna duelako; Lillok Sportingeko kamiseta eman digu; Txema Añibarrok bere botak; oso jatorra den David Mainzek Herculeseko kamiseta laga digu..."*, eta Eibar KE-ko gizonezko zein emakumezkoen taldeetako 30 kamiseta inguru ere egongo dira zozketan. *"Manix, Mendilibar eta Zapiko oso ondo portatu dira gurekin"*, aitortzen du Markuerkiagak.

Eibartik kanpo jokatzeko duten foballariak ere ekarpena egin dute, eta Nestor Susaeta (Real Oviedoren kamiseta), Iñigo Ruiz de Galarreta (Real Zaragozaren kamiseta), aurretik aipatutako Jon Errasti (La Speziaren kamiseta), Iván Vila (Real Ávila), Edu Agirrebeña (Osasuna B) eta beste hainbatek ere euren kamiseta utzi dute zozketarako.

Bitxitasun moduan, desagertutako Arrate eskubaloi taldeko kamiseta bat ere zozketatuko da; izan ere, Jose Antonio Alberdi 'Goma' eskubaloi taldeko delegatua izan zen urte askoan.

Urki eta Eibartarrak foball taldeek; Eskozia La Brava, Mandiola eta Eibar Gasteiz lagunartek; Eibar Rugby Taldeak; Euskadiko Errugbi Selektzioak; Aitziber Urkiola eta Ibon Romero triatloiariek; Mikel Zabala eskubaloi jokalariek; Odei Jainaga atletak; eta Ander Romarate eta Markel Alberdi igerilariak ere ekarpena egin dute, Markuerkiagak aipatu bezala, Eibarko zein mundu osoko kirolarien konpromezua eta eskuzabaltasuna erakutsiz.



Cristiano Ronaldoren kamiseta lortzeaz gain, R. Madrilekoek sinatutako bi baloi ere lortu dituzte.

Bizikletak udarako dira... eta baita udazkenerako ere. Mugikortasunaren Europako Astea ospatuko da bihartik, irailaren 16tik, hilaren 22ra arte, eta ekimenarekin bat egiteko asmoz, Udalak erakusketa berezia antolatu du Armagintzaren Museoa. 30. eta 80. hamarkaden artean Eibarren egindako bizikletak egongo dira ikusgai hilaren 19tik urriaren 1era, gure herriko historiaren zati garrantzitsua bi erroberatan daramatzaten bizikletak.



## Gure historia **bi** erroberatan

**50** urtetan zehar, 30.etik 80. hamarkadara, Eibarren fabrikatutako 73 bizikleta erosi ditu Udalak bere fondorako. B.H. Orbea, G.A.C. Super Cil, Fenix, Iberia, Saeta, Invicta, Teide, Ciclos Mendi, Gamma, Ciclos Sabel, Borty eta Norma marken bizikletek osatzen dute bilduma, eta Bizkaia eta Kantabria inguruan bizi den gizon batak 20 urteren bueltan egindako bilketaren emaitza da.

Patxi Lejardi Kultura eta Euskara zinegotziak azaldu digunez, "55.000 euroko kostua

izan du bilduma eskuratzeak". Zinegotziaren berbetan jende asko ibili da bizikleta sortaren atzean, baina Eibarko herriak erostea nahi zuen jabeak. "Adibidez, Orbeak pieza batzuk erosi nahi zituen, baina hori gertatuz gero, bilduma kili-kolo gertuko litzateke eta ez zuen hori nahi", adierazi digu zinegotziak. Jabearen prestutasuna kontuan izanda, "dei bat egin genuen, bizikletak ikusi genituen eta ikusitakoarekin pozik bueltatu ginen. Udaleko komisiok galdetu eta bilduma erosteko onarpena jaso genuen".

Bildumak 73 bizikleta badi-tu ere, horietako 28 egongo dira ikusgai hilaren 19an 19:00etan hasiko den erakusketan. "Museoko sarreran jarriko ditugu eta poliki-poliki berriak ateratzeko asmoa daukagu", dio zinegotziak, "ez dagoelako denak batera erakusteko tokirik". 'Pedalei eragiten 50eko hamarkada' izena dauka erakusketak eta, aipatu bezala, erakusketan egongo diren bizikleta guztiak Eibarren sortutakoak dira.

Urte haietan Eibarren lantzen zenaren erakusle, mota askotariko bizikletek osatzen dute bilduma. "Umeei zuzendutakoak, tolesgarriak, lasterketakoak, emakumezkoenak, zorrotzailak eramaten zena... harribitxi asko dago!", zinegotziaren ustetan. Gainera, 40. hamarkadan egindakoek badute bitxikeria bat Lejardik ohartarazi digunez. "Bizikletek txapa bat daukate estanpatuta aurreko aldean, damaskinatu itxura duena", bizikleten izaera eibartarra areagotuz.

### 'Pedaló' filma Coliseoan

'Pedalei eragiten 50eko hamarkadan' erakusketaz gain, Udalak beste jarduera bat antolatu du Mugikortasunaren Europako Astearen inguruan eta Juan Palacios zinemagile eibartarraren 'Pedaló' filma egongo da ikusgai Coliseoan hilaren 21ean 20:30ean. 2016ko Donostiako Zinemaldiko Irizar Euskal Zinemarako Saria eskuratu zuen Palaciosen dokumental honi esker eta orain bere herrikideen aurrean aurkeztuko du filma.

2017ko Mugikortasunaren Europako Astearen gaia mugikortasun garbi, partekatu eta adimentsuan zentratu da eta 'Partekatzeak urrutiago eramaten zaitu!' da bere lema. Honen bitartez, konpartitutako mugikortasuna sustatu eta garraibide garbien onurak azpimarratu nahi ditu Europar Batasunak, ekimenaren sortzaileak. Aste berezi honen baitan, gainera, 'autorik gabeko eguna' ospatuko da irailaren 22an.



**Ezkontzen  
DENBORALDIA**

*Eskatu aurrekontua  
konpromisorik gabe*

[www.dariobus.com](http://www.dariobus.com) - [clientes@dariobus.com](mailto:clientes@dariobus.com)



Tel. 943 741 677

## Asola-Berrikoak nagusi Arrateko hiru-txirlo txapelketan

Arrate egunean jokaturako Arrateko Amaren Hiru-Txirlo bola txapelketaren seigarren edizioan, Asola-Berriko Josean Urkia nagusitu zen Angel Garcia taldekiadearen aurretik. Irabazleak sei txirlo bota zituen, Garciak baino bat gehiago. Euren atzetik sailkatu ziren Bolibarko Oier Azumendi (4 txirlorekin) eta Soralezeko Jose Antonio Nuñez "Txiki" eta Markinako Mateo Goenaga (hiruna txirlo etzanda). Guztira 45 bolarik hartu zuten parte, sei emakumek tartean; azken horien artean Olaitz Rodriguez izan zen onena, Mada Saizen aurretik (biak ere Asola-Berrikoak).



Jose Andres Urkiak sei txirloak bota zituen Arrateko bolatokian.

## Asteburuan hasiko da foball-zaletuaren liga txapelketaren 37. edizioa

Azken urteotako talde kopuru berekin hasiko da bihar Eibarko foball-zaletuaren Ligako 37. edizioa. Martitzenean aurkeztu zuten edizio berri horretako egutegia Isasi kaleko Kirolbet lokalean eta han izan ziren aipaturako 14 talderen ordezkariak. Oraingotan Feredu Solutions eta Reformas Hiru dira berritasunak, Bar EzDok eta Kontent taldeen tokia hartzera etorri-

takoak. Hona hemen asteburu honetako lehen jardunaldiko partiduak: bihar, Esmorga - Bar Txoko eta Garajes Garcia - Feredu Solutions (09:00etan), L. Machado Tankemans - Azkena Adahi (10:30) eta Durango - Reformas Hiru (12:00); eta etzi, Alkideba - Sporting Larragest (09:00), Ipur Sagardotegia - Bar Arkupe (10:30) eta Bar Areto - Slow XOK (12:00).



Proban parte hartu zutenek talde-argazkia egin zuten Arratera igo aurretik.

## Eibartarrak irabazle Simon Aldazabal Sarian


Simon Aldazabal herri-krosaren XXII. edizioan Pello Osorok eta Aitziber Urkiolak hasieratik agindu zuten eta probaren burua ez zuten galdu Arrateko helmugara iritsi arte. Gizonezkoetan Alai Ayalak eta Enrique Zafrak osatu zuten podiuma eta emakumezkoetan, berriz, Saioa Ugidosok eta Esther Pageik. Probaren amaieran, bestalde, omenaldia egin zitzaion ekainean laga gintuen Juan Luis Azkonaga atleta-ohiari eta bere familiak plaka bat jaso zuen.

Domeka goizean Orbetik gora jokaturako probak honako emaitza izan zuen (aldamenean):

1 Peio Osoro	27:07	29 Santi Santamaria	34:53
2 Alai Ayala	28:41	30 Enrique Zialzeta	35:00
3 Enrique Zafrak	28:55	31 Alex Gonzalez	35:07
4 Sergio Lopez	28:56	32 Javi Alday	35:12
5 Txomin Osoro	29:00	33 Ibai Lazkano	35:39
6 Iñigo Trokaola	30:11	34 Javi Murcia	35:43
7 Iñigo Doce	30:22	35 Rafa Prieto	36:00
8 Andoni Mayo	30:56	36 Aitor Zubikarai	36:21
9 Jose Carlos Garcia	31:25	37 Saioa Ugidos	36:21
10 Roberto Gartzia	31:32	38 Jose Mari Guti	36:21
11 Mikel Laskurain	31:34	39 Alex Idigoras	38:04
12 Peio Berrizbeitia	31:50	40 Esther Pagei	38:12
13 Aritz Sorzabal	31:53	41 Ane Ziaran	40:07
14 Jokin Alonso	32:00	42 Mikel Anasagasti	40:07
15 Haritz Barrutia	32:13	43 Oscar Igarza	40:27
16 Igor Fernandez	32:35	44 David Hidalgo	41:19
17 David Arias	32:46	45 Imanol Teresa	41:19
18 Iñaki Serrano	32:57	46 Bittor Ugarteburu	42:26
19 Iñaki Lopez de Gereñu	33:11	47 Josu Elejalde	42:26
20 Juanjo Romero	33:26	48 Igor Azurmendi	42:26
21 Fidel Gonzalez	33:49	49 Natxo Garai	42:26
22 Aitziber Urkiola	34:08	50 Ander Egurola	44:57
23 Zigor Iriarte	34:18	51 Bittor Astigarraga	46:11
24 Aitor Oizartzabal	34:19	52 Mikel Urkidi	47:07
25 Josu Lahidalga	34:33	53 Aitor Buendia	48:57
26 Jon Illarramendi	34:34	54 Asier Serrano	50:25
27 Iñigo Gisasola	34:45	55 Fernando Serrano	50:25
28 Jose Antonio Otxoa	34:48		

## Imanol Alvarez Jorge Dueñasen bidetik

Biak ere JD Arrate eskubaloi taldearen entrenatzaileak izan ziren. Orain Imanol Alvarez ermutarrak Dueñasen lekukoa hartu du junior mailako emakumezkoen Espainiako selekzioan. Gaur egun zilarrezko mailan jokatzeko duen Errotabarri taldea prestatzen du eta aurretik Bera Bera taldearekin liga irabazitakoa da.



## Domeka goizeko Bizikleta Egunak hainbat ekitaldi hartuko ditu

Adin guztietako bizikleta-zaleek ondo gozatzeko aukera izango dute Eibarko Txirringulari Elkarteak etzi goizerako antolatutako egitarauaren barruan. Goizeko 09:00etan bi martxa hasiko dira: mountain bikean Eibarko mendi inguruetako ibilaldia izango da bat eta zikloturista martxa bestea (Eibar, Trabakua, Markina, Ondarroa, Mutriku, Deba, Mendaro, Elgoibar eta Eibar lotuko dituen 60 kilometro inguru-

koa), biak ere Untzagatik abiatuko direnak. 11:30ean 8, 9 eta 10 urteko neska-mutilek T. Etxebarria, Zuloaga, F. Calbeton eta Untzaga lotuko dituen zirkuitoari bi itzuli emango dizkiote, eta ordu laurden geroago 11 eta 12 urtekoek hirutan osatuko dute zirkuitu bera. 12:00-etan, bestalde, ginkana egingo da Untzaga plazan. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, "8 urtetik beherakoentzako gunea egokituko da Untzagan



Bi irteera antolatu dira (mountain-bike eta zikloturista) etzi goizerako.

bertan euren triziklo eta motorrak erabiltzeko". Ekitaldi guzti horiek Eibarko Udalak presatutako Mugikortasunaren Europako Astearen barruan

kokatuko dira eta, txikienentzako izango diren opariez gain, itzuli handien amaieran txorizo-pintxoak eta freskagarriak eskainiko dira.



## Garbiñe Muguruza tenislaria munduko top-aren gorenean

Caracasen jaiotako 23 urteko tenislariak munduko sailkapeneko lehen postua eskuratu zuen astelehenean, Estatu Batuetako Irekia amaitu ondoren. Jose Antonio bere aita (azkoitiarra izatez) Eibartik Venezuelara joan zen bizitzera eta han jaio zen Garbiñe. Azken aldian tenis munduko goi mailan dihardu, 1 postuarekin burutu duen ibilbidetan. Gure astekariari 2015eko urtarrilean eskaini zion elkarrizketan "gogoan ditut aitak irakatsitako euskerazko abestiak" esaten zigun moduan, sasoi hartan Xabier Gereñoren "Euskara Ikasteko Metodoa" ere erosi zuen "euskerarekin familiarizatzeke". Ikusten denez, ez da kalterako izan. Zorionak!

## Hainbat berritasun denboraldi berrirako errugbi taldean

Eibar Errugbi Taldeak entrenamenduak abiatu ditu denboraldi berriari begira, eta dagoeneko jokatu ditu partidu batzuk ere. Gizonezkoen talde nagusian Agustin Ortiz eta Francisco Müller dira berritasunak, biak ere Ordiziatik etorritakoak, eta Ion Unamuno eta Iker Lazkano talde teknikoari gehitu zaizkio. Emakumezkoen talde nagusian, bestalde, Cristina Guntinekin batera aipatutako Agustin Ortizek gidatuko ditu taldearen helburuak. Taldean jokatzeko gogoak dutenek eibarugby@eibarugby.com helbidera jo dezakete edo 627959658 telefono zenbakira deitu.

## Saskibaloia Eskola abiatuko da gaur arratsaldean Kiroldegian

Txikienekin hasiko du ikasturtea Saskibaloia Eskolak, 2006 eta 2007 urteetan jaiotako neska-mutilekin. Arratsaldeko 17:15ean dute hitzordua eta ekitaldi horretara gonbidatu dituzte "baita 2005ean jaiotakoak ere, kirol modalitate hori probatzeko aukera izan dezaten". Jarraian 2008an eta 2009an jaiotakoekin txanda izango da, 18:15ean. Aukera polita, beraz, Katu Kalek azken urteotan egindako ibilbideari jarraipena eman eta hemendik aurrera indarbertitzeko.



## Dianak ehiza txikiko lehiaketa soziala antolatu du biharko Zambranan

Diana ehiza eta arrantza elkarteak urteroko ehiza txikiko lehiaketa soziala antolatu du zapatarako. Lehiaketa Arabako lurretan dagoen Castillo de Zambranan jokatu da 09:00etatik aurrera eta izena egunean bertan eman ahal izango da, 08:30erako. Hurrengo asteko domekan (hilaren 24an), bestalde, txakurrarekin egiten den modalitate bereko eskualdeko lehiaketa jokatu da Zambranan bertan. Iaz irabazi zuelako aurten antolatzea egokitu zaion Dianakoekin batera, Elgoibarko eta Mendaroko ehiza eta arrantza elkarteetako partaideek ere hartuko dute parte hor.



## Asier Cuevas erraz nagusitu zen Winschoten-eko 50 kilometroetan

Eibarko ultrafondistak 3 ordu eta 18 segundo behar izan zituen Holandako Winschoten herrian jokaturako 50 kilometroko proba osatzeko, berak duen markarengandik 2 minutu eta 48 segundotara. 10 kilometroko zirkuitoan egindako partzialak honako denborak erakutsi zituzten: 35:20 + 35:13 + 35:58 + 36:11 +



37:36. Atleten proba osoan jasanezko behar izan zuten eguraldi kaskarrak eragin zuzena izan zuten Asier Cuevasen giharretan, eta azken kilometroak luze egin zitzaizkion. Hala ere, kilometro bakoitza batz besterik 3 minutu eta 36 segundotan egin zituen eta bigarren sailkatuari 9 minututik gora atera zizkion. Irteera hartu zuten 100 atletatik 73 helmugaratu ziren bakarrik, eta azkenak 5 ordu eta 46 minutu behar izan zituen.



Eibarko beterranoak onenak izan ziren Legazpin jokaturako torneoan.

## Eibarrek Leganes hartuko du gaur

Mendilibarren taldeak astebetean du gaurtik hasita eta datoren asteko domekara arte, tarte horretan ligako hiru partidu jokatu beharko baititu. Gaur 21:00etan Asier Garitanok entrenatzen duen Leganes etorriko da Ipurua, alde aurretik behintzat mailari eusteko arerio zuzena izango dela uste denaren aurkariaren kontra. Madrildo taldeak eibartarrak baino hiru puntu gehiago dute eta hortik neurketaren garrantzia laugarren jardunaldi honetan. Martitzenean, bestalde, 22:00etan hasita, Eibarrek Camp Nou bisitatu du (azken denboraldia amaitzeko partiduan ez ziren bi penalti kontrari adierazi zituen epaile berarekin) eta, astea amaitzeko, hurrengo domekan Celta izango da bisitari Ipuruan (18:30). Ivan Alejok, bestalde, "sei-zortzi aste beharko ditu ezkerreko belauneko lesioa sendatu eta berriro jokatzeko"; hala ere, zorionekoa da jokalaria, ebakuntzarik ez duelako behar. Sevillan min hartu zueneko irudia ikusita, lesioa larriagoa izan zitekeela beldur zen kluba.

Xuban Peñaren emakumezkoen taldeak, bestalde, bikain hasi du liga eta, San Ignacioren kanpoan irabazi eta gero, aurreko asteburuan Añorga gaingitu zuten (1-0), azken minutuan Irantzuk sartutako golari esker. Saikapenean goi-goian daude, Athletic B eta Logroñorekin berdinduta.

Eta beterranoen taldeak Legazpiko Gazteak Kirol Elkarteak antolatutako torneo bereganatu zuten, finalean Realeko beterranoei 1-0 irabazita. Finalerdietan Ilintxari irabazi zioten.



Mikel Zabala zilarra lortu zuen Espainiako selekzioarekin.

## Eibar Eskubaloiak ikasturte hasiera indartsua prestatu du

*"Jokalariekin, euren familiarekin eta gurekin ospatu nahi dute jarraitzaileekin"* denboraldiaren hasiera ospatzeko asmoa azaldu du Eibar Eskubaloiko zuzendaritza berriak. Domekan, hilaren 17an, goizeko 10:00etan elkartuko dira Azitaingo Altzubarren frontoian Arratera igotzeko eta, behin Arraten, 12:00ak aldera jolasekin hasiko dira eta "piskolabis txikiari" ekingo diote. Egun horretako aktibitateak 14:00etan amaituko dira, baina kluba prest dago jokalariek berriak hartzeko; hori dela-eta, dei egiten die "2005ean jaiotako mutili" eurekin taldea osatzeko. Interesatuak Ipurua kiroldegitik pasatu daitezke eguazten eta barixakuetan 15:30ean.

### Somos Eibarrek bihar jokatu du

Eibar Eskubaloiko klubak zuzendaritza talde berria du: "Maiztaren 31n osatu genuen eta ekainaren 16an aurkeztu ginen", dio Gaizka Bil-

bao presidente berriak. Somos Eibar lehen taldeak abuztuaren 24an hasi zituen entrenamenduak eta irailaren 4an ekin zioten lanari beste talde guztiek; eskubaloiko eskola, bestalde, urrian abiatuko dute.

Aurreko asteburuan jokaturako Kopako partiduan Egiari 22-29 irabazi eta gero (defentsa bikaina eta joko bizia erakutsi zuen taldeak), bihar 18:30ean ekingo dio aipatutako Somos taldeak ligari, Ipuruan Elgoibarko Sanlo hartuta. Azken urteotako ika-mikak baretzeko asmoz, gainera, zuzendaritza arteko bazkaria antolatu dute. Eta, partidua aurretik, "aurreko zuzendaritza-taldeari omenaldi txikia egingo" diote eta, baita, "munduko txapelkunorde geratu den Mikel Zabalar". Gure herriko eskubaloiak gaur egun duen jokalariek aipagarriena da Zabala eta Tbilisin (Georgia) uztailan jokaturako jubenil mailako txapelketan zilarrezko domina eskuratu zuten Espainiako selekzioarekin.

## Denboraldi berria erritmikoan

Ipurua gimnasia erritmikoko klubean parte hartzeko matrícula epea hilaren 20an itxiko dute. Klubeko talde gehienak osatuta badaude ere, interesatuak azken egun hauek aprobetxatu ditzakete izena emateko (gimnasiaipurua@hotmail.com). Hastapen taldeak 3 urtetik aurrerako umeekin osatzen dira eta, batez ere, psikomotrizitatean sakontzen dute prestatzaileek, gutxinaka-gutxinaka disziplina horretan jabetzen laguntzeko.

# BERBETAN-ek ikasturte berria aurkeztuko du irailaren 19an Portalean

**BERBETAN** eta **ONGI ETORRI BERBETAN-era** mintzapraktika eta elkarbizitzarako programak aurkeztuko ditu ...eta kitto! Euskara Elkarteak irailaren 19an, martitzena, 19:00etan. Aurten lekuz aldatu da, eta **Portaleko areto nagusiak** hartuko du ekitaldia. Bertan programok diruz babesten dituzten erakundeetako ordezkariak eta herriko elkarteetakoak, berbalagunak... egongo dira. Ekitaldia irekia izango da nahi duten guztientzat.

Aurkezpenean **BERBETAN** eta **ONGI ETORRI BERBETAN-era** egitasmoen barruan prestatu duen egitarau zabalaren berri emango du ...eta kitto! Euskara Elkarteak: hitzaldiak, txangoak, tailerrak... Horretaz gain, 2016/17 ikasturtean egitasmoek izan duten garapenaren eta 2018rako erronken berri ere emango dute.

**BERBETAN** egitasmoa 2002an jaio zen, eta ahozko euskara maila hobetu nahi dutenei mintzapraktika taldeak eskaintzen dizkie. Talde eta berbalagun gutxirekin hasi bazen ere, gaur egun ehundik gora parte-hartzaile daude. Urtetik urtera behar espezifikoei egokitzeko egindako esfortzua nabarmena izan da. 2015etik aurrera Udalaren babesari esker programa garatu eta erakargarriago egiteko aukera zabaldu da. Gaur egun, euskararen erabilera bultzatzeko, euskal kulturara hurbiltzeko, euskara esparru sozial eta ekonomiko berrietara hedatzeko eta herritarren arteko harreman sareak zabaldu eta elkarbizitza sustatzeko proiektua da. **BERBETAN**en barruan, gainera, "Dendariak eta ostalariak Berbetan", eta "Gurasoak Berbetan" daude.

Bestalde, iaz, **ONGI ETORRI BERBETAN-era** harrera eta elkarbizitzarako egitasmoa jaio zen, eta aurten ere aurrera egingo du. Eibarko auzoetan bizilagun taldeak eta sareak sortzen dira eta baita kultur aniztasuna ezagutu eta elkar ezagutzeko espazioak ere. Egitasmo horren helburua euskarara eta euskal kulturara gerturaztea eta herriko jatorri ezberdinetako bizilagunak elkar ezagutzeko da. Ekintza batzuk berbalagunekin batera egin zituzten eta aurten egitarau bateratua antolatu dute egitasmo arduradunek.

**berbetan**

Euskerazko mintzapraktika taldeak  
elkarte@etakitto.eus

943 20 09 18  
www.etakitto.eus

Harrera eta elkarbizitzarako programa  
Programa para la acogida y convivencia  
ongiotorri@etakitto.eus

Ongi etorri  
**berbetan**<sub>era</sub>

*Aurrerapen moduan, hemen daukazue aurtengo kartela eta diptikoak egiteko erabili den irudia. Diptikoak Eibarko ikastetxe, denda, taberna, elkarte eta leku publikoetan banatuko dira, eta Berbetan eta Ongi Etorri Berbetan-era egitasmoen gaineko informazioa jasotzeaz gain, izena emateko ere erabili ahal izango dira.*

*BERBETAN eta  
ONGI ETORRI BERBETAN-era  
egitasmoen barruan prestatu den  
egitarauaren berri emango da irailaren  
19ko aurkezpenean.*

# Kalera irtengo da Berbetan egitasmoa

Irailaren 22an Untzagan egingo den jaialdian haurrentzako puzgarriak eta eskulanak egongo dira. Eta jolasak eta txokolatada Urkin, Amañan eta Urkizun iraileko azken astean.

Eibarko haur eta guraso guztientzako jaialdi ikusgarri eta dibertigarria egingo da Untzagan datorren astean (irailaren 22an, barixakua), 17:30etik 19:00etara. Denetarik egongo da, ondo pasatzeko moduko gauza mordoa: Irrien Lagunen puzgarriak alde batetik, eta eskulanak egiteko mahaiaik bestetik. Ez da aspertzeko denborarik egongo eta adin guztietako hurrek izango dute ondo pasatzeko aukera.

Orain dela bi urte hasi zen egiten Berbetan Jaialdia ikasturteari hasiera emateko. Iaz, eguraldi txarrak hala behartuta, Urkizuko eskolako jolastokian egin behar izan zen, baina aurten berriz ere Untzagara bueltatzea espero dute ...eta kitto!ko antolatzaileek.

Hurrek primeran pasatzen duten bitartean ...etakitto!-ko arduradunak jendearengana hurbilduko dira Berbetan-en gaineko informazioa emateko: zein helburu daukaten egitasmoek, norentzat diren, nola eman daitekeen izena, zein taldetan har dezaketen parte, zein egitarau prestatu duten aurtengo ikasturterako, zalantzak argitzeko...

Untzagan ez ezik, eta ia zoko bideari jarraituz, auzoetara ere joango dira antolatzaileak egitasmoen berri ematera: "Irailaren 26an Urkin egongo gara, Ceba taberna parean, 27an Legarreko frontoian eta 29an Urkizuko parkean. Arratsaldeko 17:30etatik aurrera umeentzat jolasak eta txokolatada prestatuko ditugu".



**berbetan**  
**JAIALDIA**

**IRAILAK 22** (ostirala) 17:30etik 19:00etara **UNTZAGAN**

eskulanak eta puzgarriak

eta auzoetan...

**eskulanak eta txokolatada**

- Urkin: Ceba parean irailaren 26an
- Amañan: Legarreko frontoian irailaren 27an
- Urkizuko parkean: irailaren 29an

Auzo guztietan 17:30ean

Antolatzailea  
**eta kitto!**  
Euskara Elkarteak

Babesleak  
EUSKAL GOB. ERKIDEKOA  
EUSKAL GOB. ERKIDEKOA  
EUSKAL GOB. ERKIDEKOA



ARGAZKIA:  
Asun Agiriano



**SAROA BIKANDI**  
(ipuin-kontalaria)

– *Nola funtzionatzen dute Eibarko taldeek?*

Oso ondo. Jendea oso zintzo etortzen da eta euskara maila oso ona izaten dute. Horrek asko errazten du lana.

– *Nolako gauzak lantzen dituzue 0-3 urte bitarteko taldean?*

Haur txikienek ahozotasunarekin lortzen dute plazer handia. Beraz "Azaleko ipuinak" taldean asko lantzen ditugu abestiak, ipuin laburrak, ahozko tradizioetik datorrena... Eta dena gorputzarekin lotzen da, esate baterako esku-jolasekin. Betidanik egin diren gauzak egiten ditugu baina errepertorioa handituta. Ume txikiek dena ahotsetik eta azaletik ulertzen dute, beraz bi erraminta horiekin batera egiten dugu lan. Masajeak ere egiten ditugu. Saiok 45 minu-

## "Ume txikiek dena azaletik eta ahotsetik ulertzen dute"

Eibarko liburutegiak haurrentzako antolatzen dituen irakurketa-taldeetako dinamizatzailea da Saroa Bikandi ipuin-kontalari durangarra. Ikasturte honetan hirugarrenez izango da Eibarko haur eta gurasoekin lanean. Irakurzaletasuna sustatzeko bi proiektu ditu Saroak: "Azaleko ipuinak" 3 urte arteko haurrentzat, eta "Liburuen poltsa" 4-8 urte bitartekoentzat. Biak urrian hasiko dira eta hilean behin izango dute haur eta gurasoek haur literaturarekin gozatzeko aukera.

tukoak izaten dira eta nagusi batekin etorri behar dute, konpartitzeko gogo daukan batekin. Benetan merezi du, eta heldu asko harrিতa gelditzen dira. Ahozkotauna lantzeaz gain saioetan haurrentzako liburuen bibliografiatxo bat egiten hasi gara, gurasoak haur-literaturan da-goena kuxkuxeatzen joateko.

– *Bigarren irakurketa taldea, "Liburuen poltsa" 3-8 urte bitartekoentzat da. Zer eskaintzen da horretan?*

Haurren arreta maila altuagoa da adin horretan. Ahozotasuna beste modu batean lantzen da, memoriatik, jolasetik... Gurasoak haur-literatura ezagutzen joatea da helburuetako bat, gustoa hartzea, beldurra kentzea... Eta, horregatik, hemen ere hartzen dute parte gurasoek. Ahozotasuna lantzen dugu, gero ipuin

bat kontaktzen diet eta horrekin zerikusia daukan eskulan bat eta jolasak egiten ditugu. Azken finean ideia istorio batetik tira egitea da. Bi taldeetan liburuaren poltsa bat egiten dugu, zozketatu egiten da eta etxez etxe joaten da. Gero familia bakoitzak kontaktzen du berea, zein gustatu zaion...

– *Zergatik da hain garrantzitsua haur-literatura?*

Haur-literatura polita da plazeretik bizitzea eta ez betebeharrak edo obligazio bezala hartuta. Lehenengo gurasoek disfrutatu behar dute haur-literatura irakurtzen gero umeek disfrutatuko. Askotan haur-literaturari gauza asko eskatzen zaizkio, baina gauza guzti horiek etorriko dira bakarrik giro atsegin horretatik.

## "Forjarien kanta" musikalerako sarrerak salgai jarri dituzte

Azaroan "Forjarien Kanta" musikala ikusteko gogoarekin gelditu zirenek irailaren 29an horretarako aukera paregabea izango dute. Izan ere, egun horretan, 20:30ean, berriro ere Coliseo Antzokiko taula gainean izango ditugu Eibarko Koru Gaztea-ko abeslariak. Elena Martinek zuzentzen duen Eibarko J.B. Gisasola Musika Eskolako Koru Gaztearekin batera, Eibarko Musika Bandako zenbait kidek eta Musikeneko ikasleek osatutako Forjarien Banda izango da. Musikene Euskal Herriko goi-mailako musika-ikastegiko ikasleen parte-hartzea da aurtengo berrikuntza nagusia. Kantua, zuzeneko musika, elkarriketak eta dantzak nahasten dituen ikuskitzuna da "Forjarien Kanta". Sarrerak salgai daude Coliseoan eta Kutxa-bank-en webgunean: 8 euro balio du (6 euro Coliseoko lagunentzat).



## "The Buttshakers" taldearen kontzertua Coliseoan

Irailaren 23an "The Buttshakers" taldeak emanaldia eskainiko du Coliseo antzokian, 20:30etik aurrera. Ciara Thompsonen ahots liluragarria buru dutela, Buttshakers taldea bere bidea sortzen ari da. Taldekideek Rhythm & Blues gordin, heze eta epela erabiltzen dute hainbeste maite duten soul musikaren esentziarekin. 2011n "Headaches & Heartache" s lehen albuma kaleratu eta gero, taldea ezagunago egin zen. 2013an Hanburgon grabatutako "Wicked Woman" EP-a argitaratu zuten, Copasedisques zigiluarekin. "Night Shift" bigarren diskoa atera zuten 2014an. Beti ere maila handiko soularekin, azken lanak onenen pare jartzen ditu: Sharon Jones, The Sweet Vandals, Charles Bradley, James Brown... Sarrerak 10 euro balio du (7 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin).






## Kulturaleko bazkideen erakusketak zabalduko du kurtsoa Topalekuan

Arrate Kultur Elkarteak urtero antolatzen duen bazkideen erakusketarekin ekingo dio ikasturte berriari Topalekuak. Erakusketa irailaren 22an zabalduko dute eta urriaren 8ra arte egongo da ikusgai, ohiko ordutegian. Parte hartu nahi duten bazkideek datorren asteko martitzenerako entregatu beharko dituzte erakutsi nahi dituzten lanak, elkartearen bulegoan (astelehenean 17:00etatik 19:00etara eta martitzenean 10:30etik 12:30era). Bazkide bakoitzak gehienez bi lan aurkezteko aukera izango du (oso handiak ez badira). Erakusketaren zaintza, bestalde, parte hartzen duten bazkideen artean egingo dute.

## Astelehenean hasiko da "Argazkigintza digitala" ikastarorako izen-ematea



Argazkigintza digitalaren oinarriko kontzeptuak ezagutu eta teknikak ikasi nahi dituztenentzat "Argazkigintza digitala: lehen urratsak" ikastaroa emango dute Portalean, Argazkigintza gelan, urriaren 17tik aurrera. Jose Valderrey eta Juan Antonio Palacios Klub Deportiboko Argazki Taldeko kideek emango dituzte klaseak, astelehen eta eguaztoretan, 19:00etatik 21:30era (30 ordu guztira). Izen-ematea astelehenean zabalduko dute eta 16 urtetik gorakoek izango dute izena emateko aukera, Pegoran (urriaren 5era arte). Ikastaroaren prezioa 47 eurokoa da Eibarren erroldatuta daudenentzat (79 euro gainontzekoentzat).

## Beldur Barik lehiaketaren edizio berria martxan

Aurten ere Beldur Barik ikus-entzunezko lehiaketa egingo da, indarkeria matxista prebenitzeko asmoz gazteekin lan egiten duen programaren harira. Astelehenean abiatu zen lehiaketa azaroaren 13an amaituko da eta irabazleak abenduaren 2an emango dituzte ezagutzera, aurten Eibarren ospatuko den Euskadi mailako topaketan. Lehiaketari buruzko informazio guztia beldurbarik.org helbidean eskuratu daiteke edo, bestela, Andretxeara deituta (943 70 08 28) edo idatzita (andretxea@gmail.com) azalpen gehiago jasotzeko aukera ere badago.



## Bertsolari Txapelketa Nagusirako sarrerak salgai

Irailaren 23an abiatuko da Bertsolari Txapelketa Nagusia eta, abenduaren 17an amaitu aurretik Baigorri, Segura, Leitza, Zalla, Zumaia, Tolosa, Bastida, Irun, Maule-Lexarre, Durango, Amurrio, Donibane Lohizune, Iruñea eta Barakaldo izango ditu helmuga. 43 bertsolarik, 18 gai jartzailek eta 20 epailek hartuko dute parte txapelketan eta sarrerak [www.bertsosarrerak.eus](http://www.bertsosarrerak.eus) atarian salgai ipini dituzte. Txapelketari buruzko ataria ere prest dago [www.bertsozale.eus](http://www.bertsozale.eus) webgunean.



## Argazkiak erakusteko aukera

Eibarko Klub Deportiboko Argazki Taldeak 2018 urtean argazki erakusketa ipini nahi dutenentzat izen-ematea zabaldu du. Hiru eremu ezberdin daude aukeran 28, 12 edo 10 argazki erakusteko tokiarekin. Deporrek argazkilariek erakusketari buruzko kartela argitaratzeko zein informazioa zabalteko ardura euren gain hartzen dute. Interesa duenak [jlirigoien@gmail.com](mailto:jlirigoien@gmail.com) helbidera idatzi dezake.



## Sostoa abesbatzaren gonbidapena

Aste honetan ekin dio ikasturte berriari Sostoa abesbatzak eta, beste urte batzuetan egindakoaren bidetik, taldearekin bat egin nahi dutenei entseguetara joateko gonbidapena egin nahi diete. Astean bi egunetan, martitzen eta eguenean izaten dira entseguak, Musika Eskolan (Portalean), 21:00etan hasita. Abestea gustatuz gero, 669 012 902 telefonora deituta jar daiteke abesbatzarekin kontaktuan.



LOREA ARAKISTAIN

## Lehen Hitza

Gure telefono mugikorrek hitz egiten dute, baita ordenagailuetako nabigatzaileek ere. Gure gailuek lehen hitza euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez edo frantsesez ematea gure esku dago. Gure esku dago gure gailuek euskaldunak direla esatea.

Interneten darabilgun hizkuntza WhatsAppeko elkarrizketetatik haratagokoa da, irakurtzen ditugun edukietatik haratagoa. Aparailuaren beraren konfigurazio hizkuntzak definitzen du darabilgun hizkuntza. Zer garen, nongoak garen. Nori axola dio nire mugikorraren konfigurazio hizkuntza zein den? Mundu guztiari. Mugikorraren hizkuntza eta nabigatzailearen nabigazio-hizkuntza ez dira eremu pribatuak: bisitatzen dituzun webguneek, deskargatzen dituzun aplikazioek eta hauen atzean dauden pertsonak badakite zein hizkuntzatan daukazun zure gailuak, guzti-guztiak. Eta, datu horietan oinarrituta eta eskari-eskaintzaren logikari jarraituta hartzen dituzte erabakiak. Horren arabera erabakitzen dute webguneek zein hizkuntzatan erakutsi edukia. Horren arabera erabakitzen dute zerbitzu bat garatu ala ez. Zure nabigazio-hizkuntza konfiguratzea eta euskara lehenestea uste baino garrantzitsuagoa da. Izan ere, nabigatzailearen hizkuntzak esaten dio munduari zein den zure lehenengo hizkuntza. Zein da zurea? Euskara? Eta nola daukazu konfiguraturata zure nabigatzailea? Eta zein hizkuntzatan darabilzu mugikorra? Jarri ezazu mugikorra euskaraz euskalduna zarela jakin dezaten!

## UEUk 13 ikastaro prestatu ditu udazkenerako Eibarren

Udako Euskal Unibertsitateak udazkeneko eskaintza aurkeztu berri du eta, horren barruan, urria eta abendua bitartean 13 ikastaro emango ditu Eibarren eta on-line. Markeskuan eman-gotuzten sei ikastaroak hauek dira:

“Euskal paisaiak 2050: Eibarko erronkak aztertuz lurralde zabalerako aukerak sortzeko”, “Ez utzi biharko gaur egin dezakezuna: zure produktibitatea hobetzeko metodo eta tresnak”, “Galerak, heriotza eta dolua haurren hezkuntzan”, “Larreko eskolatik. Musika beste era batera irakasteko proposamena”, “Prozedura feministak: ezagutza, ikerketa eta herrigintza” eta “Arkitekturan, euskaraz?” II. Topaketa.

Eta internet bidez, on-line eskainiko diren ikastaroak, berriz, “Adingabeak eta Internet: arriskuak eta nortasun digitala”, “Kolorozko zenbakia. Matematika lantzen erregeleten bidez”, “Moodle-n irakaskuntza eraginkorra nola”, “No-



la hezi genero-berdintasunean eskolaren eremuan”, “Norberaren PLEa osatuz: lan akademikoak eta talde-lanak errazteko baliabide teknologikoak”, “R software askearen erabilera Natur Zientzietako estatistikan” eta “Tribuaren berbak sekuentzia didaktikoak gelan erabiltzeko jarraibideak” dira. Matrikula epea zabalik dago eta [www.ueu.eus](http://www.ueu.eus) webgunearen bitartez egin daiteke edo, bestela, 943 82 14 26 telefonora deituta. Eibarren errolatutako herritarrentzat dirulaguntzak daude. Bestalde, Markeskuan dagoen UEUren bulegoa 09:00etatik 17:00etara zabalitzen dute eta nahi duenak handik pasa daiteke informazio bila.

## Kezkaren dantza-eskolarako matrikulazioa zabalik: klaseak 25ean hasiko dira

Eibarko Klub Deportiboko Kezka dantza taldearen eskutik gidatutako dantza-eskolak irailaren 25ean zabalduko ditu ateak, Portaleko dantza-gelan (3. solairuan), 6 urtetik gorako haurrentzat. Nagusientzat, berriz, plazako euskal dantza tradizionalaren inguruko ikastaro bereziak eskainiko dituzte, irailaren 26an hasita, honako aukera zabalarekin: hasiberrientzat klaseak martitzenetan (19:00etatik 20:00etara), eguenetan (11:00etatik 12:30era) eta barixakuetan (19:00etatik 20:30era) izango dira. Jarraipeneko klaseak, berriz, martitzenetan (10:00etatik 11:30era edo 20:00etatik 21:00etara), eguenetan (09:30etik 11:00etara) eta barixakuetan (17:30etik 19:00etara) emango dituzte. Ikastaroetarako matrikulazioa zabalik dago. Informazio gehiagorako eta izena emateko 943 53 04 40 zenbakira deitu daiteke edo, bestela, [kezka@dantzan.com](mailto:kezka@dantzan.com) helbidera idatzi.



## Zinemaldian saritutako “Pedaló” hilaren 21ean



Datorren asteko egunean, 20:30ean, Juan Palacios eibartarraren “Pedaló” film dokumentalaren aurkezpena egingo dute Coliseo antzokian. Donostiako Zinemaldia-aren azken edizioan Irizar Euskal Zinemarako Saria eskuratu zuen eta eibartarrak hasieratik amaierara arte egindakoa da. Filmak ordubete luzea irauten du, gazteleraz dago eta euskal kostaldetik pedaloan doazen hiru lagun bidaia kontatzen du. Sarrerak 5 euro balio du.



**Albert Pla ERMUAN irailaren 22an**


Sabadellen jaiotako Albert Pla abeslari, interprete, bufoi, poeta, aktore eta clown zirikatzailea Ermuko antzokian izango da irailaren 22an, barixakua 22:15etik aurrera. Gaztelaniaz eta katalanez abesten du. Bere abestien letrak askotan polemikoak dira eta beste batzuetan ume abestien ukituak dituzte. Horrez gain Manolo Kabezabolo, Roberto Iniesta (Extremoduro), Fermin Muguruza (Kortatu, Negu Gorriak), Quimi Portet (El Último de la Fila), Kase.O (Doble V) eta Quico Pi de la Serra bezalako musikariek in lan egin du askotan. Istorio tragiko eta zoroak kontatzen ditu, egunerokoak eta harrigarriak, samur eta zakarrak, zuria eta beltza, positiboa eta negatiboa bereizten dituen marra estua agerian uzteko. Sarrerak 12 euro balio du.



**SanloBeer garagardo festa ELGOIBARREN**

SanloBeer garagardo festa antolatuko du Sanlo eskubaloi taldeak, bosgarren urtez. Iaz hasitako bidetik, Maalako parkean izango da, irailaren 14tik 17ra bitartean. Garagardoaz (Keler, Free Damm, Carling, Bock Damm, Estrella, Radeberger, Oro Bilbao eta Turia) gainera, egunero ukondoak, saltxitxak, patata purea, oilaskoa eta patata frijituak eskainiko dituztela jakinarazi dute. Azken egunean, domekan, paella erraldoia prestatuko dutela aurreratu dute. Bost euroan salduko dituzte bazkarirako txartelak. Jan edanaz gainera, zuzeneko musika emanaldiek, bingoak edo dantzaldiek girotuko dute karpako giroa.

eguraldia (EUSKALMET.NET)



**hildakoak**

- Julio Garcia Lopez. 90 urte. 2017-IX-1.
- Marcelina Campos Campos. 83 urte. 2017-IX-5.
- Juana Odriozola Odriozola. 87 urte. 2017-IX-5.
- Gotzon Sarasua Amesti. 69 urte. 2017-IX-7.
- Jose Manuel Galvan Torres. 61 urte. 2017-IX-7.
- Imanol Agirregomezkorta Salaberria. 67 urte. 2017-IX-8.
- Josu Castor Belastegi Amorrosta. 53 urte. 2017-IX-9.
- M<sup>a</sup> Luisa Alberdi Aldazabal. 95 urte. 2017-IX-12.
- Juan Jose Cano Seijo. 81 urte. 2017-IX-12.
- Jose Lafuente Aguado. 83 urte. 2017-IX-13.

**jaiotakoak**

- Raihan El Ayadi Aroubio. 2017-VIII-19.
- Xabier Garro Larañaga. 2017-IX-4.
- Eria Gutierrez Hernando. 2017-IX-4.
- Ander Aristi Igartua. 2017-IX-5.
- Oskitz Ruiz Olmo. 2017-IX-5.
- Maialen Novoa Ansola. 2017-IX-6.
- Markel Gabilondo Lekunberri. 2017-IX-7.

**farmaziak**

- Barixakua 15  
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
- Zapatua 16  
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
- Domeka 17  
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
- Astelehena 18  
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
- Martitzena 19  
EGUNEZ Lafuente (Sostoaarren, 10)
- Eguaztena 20  
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
- Eguena 21  
EGUNEZ Iraundegi (Calbeton, 19)
- Barixakua 22  
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)

GAUEZ BETI - 2017 AN-  
Mandiola (S. Agustin, 3)

**telefono jakingarriak**

- SOS deiak.....112
- Pegora.....010
- Udaletxea .....943 70 84 00
- Portalea .....943 70 84 39
- Udalzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea.....943 70 07 99
- Debegesa .....943 82 01 10
- KIUB .....943 20 38 43
- Epaitegia .....943 03 34 00
- Iberdrola.....901 20 20 20
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak .....943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekua .....943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza .....943 53 17 00
- Eusko Tren.....902 54 32 10
- Lurraldebus .....900 30 03 40
- Pesa.....900 12 14 00
- Taxiak .....943 20 30 71
- .....943 20 13 25
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen.....650 26 59 63

**SUDOKUA**

AURREKOAREN EMATZA

3	2	8	7	4	5	9	1	6
1	4	7	6	2	9	5	8	3
6	9	5	1	8	3	4	2	7
4	8	9	5	1	7	3	9	2
2	1	6	8	3	4	7	5	9
7	5	3	9	6	2	8	4	1
8	3	1	4	9	6	2	7	5
5	6	2	3	7	8	1	9	4
9	7	4	2	5	1	6	3	8

		5		6	1			9
				8				6
9	1							
	7	8	4					
		1	2		6	5		
					8	4	1	
							8	1
	9			4				
	6		1	7		3		

## Barixakua 15

### JARDUNALDIA

**15:00.** Itsas Energiari buruzko jardunaldiak, Maynooth Unibertsitateko (Irlanda) ikertzaileen eskutik. UPV/EHUko Gipuzkoako Ingeniaritza Eskolaren San Andres aretoan.

### EMANALDIA

**20:30.** AKEBAI plataformaren ekimenez ekainaren 22an egindakoa gogoratzeko argazki eta bideo emanaldia. Untzagan.

## Zapatua 16

### TAILERRA

**11:30.** Umeendako tailer artistikoa. Izen-ematea: Liburu sailean (P3). El Corte Ingleseko ekitaldi aretoan.

### MANIFESTAZIOA

**16:00.** Kataluniako erreferenduma babesteko Gure Esku Dagok deituta Bilbon, La Casillatik 17:30ean abiatuko den manifestaziorako autobusaren irteera. Ego Gaietik.

## Domeka 17

### BIZIKLETA EGUNA

**09:00.** Mountain-bike (Eibarko mendi inguruetako ibilaldia) eta Zikloturista Martxen hasiera.

**11:30.** 8, 9 eta 10 urtekoen zirkuitoa (bi itzuli).

**11:45.** 11 eta 12 urtekoen zirkuitoa (hiru itzuli).

**12:00.** Ginkana. Untzagan gunea prestatuko da 8 urteko beharokoentzat.

### ARRATE IZENEN KOEN JAI

**09:00.** Arrate izenekoan XXI. jai. Untzagatik abiatuta, Arratera igoera Ama Birjinaren pausoen bide zaharretik.

**12:30.** Meza. Ondoren, bazkaria, jolasak eta dantzaldia. Arraten.

### EIBAR ESKUBALDIA

**10:00.** Elkarretaratzea Altzubarren frontoian, Arratera igotzeko.

**12:00.** Jolasak eta piskolabis txikia. Arraten.

### BIEN APARECIDA JAI

**12:00.** Meza. San Andres elizan.

**13:00.** Piskolabisa bazkide eta laguntzat, Kantabriako Etxearen tabernan (Jardiñetan).

## Martitzena 19

### AURKEZPENA

**19:00.** Berbetan eta Ongi-etorri Berbetan programen aurkezpena. Portaleko areto nagusian.

## Eguaztena 20

### BILERA

**18:30.** AKEBAI plataformaren bilera irekia. Udaletxeko patioan.

## Eguena 21

### ODOL-EMATEA

**18:30.** Odol-emateentzat odola ateratzeko saioa. Anbulatorioan.

### EKINGUNE

**18:30.** Pintxo-pote tematikoa: "Izan zaitez zure buruaren coach-a bizitzan eta lanean", Iker Fernandez eskutik.

Aurkezpena eta konferentzia.

**20:15.** Eztabaida eta pintxo-potea.

**21:00.** Amaiera. Armeria Eskolan.

### ZINEA

**20:30.** "Pedaló", iaz Donostiako Zinemaldian saria jaso zuen Juan Palacios eibartarraren filmaren aurkezpena. 5 euro. Coliseoan.

## Erakusketak

### Irailaren 19tik urriaren 1era:

– "PEDALEI ERAGITEN 50-EKO HAMARKADAN", PEDRO PEREZ-en Eibarren egindako 50eko hamarkadako bizikleten erakusketa. (*Armagintzaren Museoa*)

### Irailaren 30era arte:

– "HEGAZTIEN MUNDUA", PEDRO PEREZ-EN argazki-erakusketa. (*El Corte Inglesean*)

– ALBA SANCHIZ-EN argazki-erakusketa. (*El Ambigu tabernan*)

– VIRGINIA BARINAGA-REN argazki-erakusketa. (*Portalea jatetxean*)

## zineaColiseoan

### (1 ARETOAN)

**16an: 19:45, 22:30**

**17an: 20:00**

**18an: 20:30**

### "Churchill"

Zuzendaria: Jonathan Teplitzky



### (2 ARETOAN)

**16an: 17:00, 19:45, 22:30**

**17an: 17:00, 20:00**

**18an: 20:30**

### "La niebla y la doncella"

Zuzendaria: Andres Koppel



### (ANTZOKIAN)

**16an: 17:00<sup>(1)</sup>, 19:45, 22:30**

**17an: 17:00<sup>(1 aretoan)</sup>, 20:00**

**18an: 20:30**

### "Barry Seal. El traficante"

Zuzendaria: Doug Liman



### (ANTZOKIAN)

**16an: 17:00**

**17an: 17:00**

### "Tadeo Jones 2. El secreto"

Zuzendaria: Enrique Gato



**Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.**



Zorionak, ANE Agote Ramirez, abuztuaren 29xan urtetxua bete zenduan-eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.




Zorionak, ALAITZ, abuztuaren 14an 5 urte bete zenduan-eta. Famelixa guztiaren eta, batez be, zure anaixa Gaizkaren partez.



Zorionak, UNAX, etxeko txapeldun, hillaren 19xan 10 urte beteko dozuz-eta. Musu bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, IKER, martitzenian 5 urte bete zenduaz-eta. Musu haundi bat famelixaren eta, batez be, Koldoren partez.




Zorionak, IRATI, abuztuaren 30ian 7 urte egin zenduazelako. Besarkada erraldoia danon partez!



Ongi etorri, NORA Mendizabal Osa, uztaillaren 16xan jaixo zifian-eta. Musu haundi bat Nagore eta Xabi gurasueri eta Ane aitzitari.



Zorionak, NORA, abuztuaren 3 urte bete zenduaz-eta. Musu bat famelixa guztiaren partez eta segi hain alai eta bihurritxo izaten.



Zorionak, ANE!!!, domekan 10 urte egingo dozulako. Patxito pilla bat aitaxo, amatxo eta Mikelen partez.



Zorionak, MARTINA, gure etxeko printzesa, haillaren 12xan 7 urte bete zenduaz-eta. Aitaxo, amatxo eta Luciaren partez.



Zorionak, LOREA, atzo 5 urte egin zenduazelako. Etxeko guztion eta, batez be, Malenen partez.



Zorionak, PEIO!, abuztuaren 10ian 6 urte bete zenduaz-eta. Patxo erraldoia famelixakuen partez!



Zorionak, ALAZNE, zure bigarren urtebetetzian. Musu haundi bat etxeko guztien partez.



Zorionak, MAITANE Uribe Elexpuru, astelehenian 7 urte egingo dozuz-eta. Patxo haundi bat famelixaren eta, batez be, MARKELen partez.



Zorionak, PACO eta ASUN, zuen urrezko ezteietan. Famelixa guztiaren partez!



Zorionak, UDANE, domekan 6 urte egin zenduaz-eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, JOKIN, Arrate egunian sei urte egin zenduaz-eta. Musu pilla bat etxekuen eta laguneren partez.



Zorionak, ALEX, atzo 7 urte bete zenduaz-eta. Musu haundi bat etxekuen partez!



Astelehenian 12 urte egingo dozuz, MALEN. Egun politta pasauko dozulakuan, hor doia musu haundi-haundi bat famelixaren aldetik.



INTZA, neska haundi! Domekan 10 urte egingo dozulako-eta, 10 milla musu etxeko danon partez!

**i** Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eu** webgunean ere argitaratuko dira.

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

## 3. Lokalak

### 3.2. Errentan

– Garajea alokagai Legarre-Abontzan. Tel. 617-688311.

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 679-946934.  
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 602-552182.  
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 691-616356.  
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 671-763558.  
 – Emakumea eskaintzen da arratsaldetan eta asteburuetan garbiketarako egiteko. Tel. 689-003537.  
 – Emakume euskalduna eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 646-344937.  
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 680-526228.  
 – Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko. Tel. 642-142985. Yolanda.  
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-166357.  
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 612-482203.  
 – Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 677-237455.  
 – Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Erreferentziak. Tel. 602-648923.  
 – Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Erreferentziak. Tel. 608-651142.  
 – Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 677-292201.  
 – Haur Hezkuntzako irakaslea eskaintzen da umeak zaintzeko. Premian arabera. Tel. 688-862668.  
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 674-917962.  
 – Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko eta eskolara eramateko. Margotze eta marrazte klaseak emateko prest. Tel. 645-728317.  
 – Emakumea eskaintzen da asteburuetan lan egiteko: umeak edo nagusiak zaindu, garbiketarako egin... Tel. 631-230281.  
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Externa. Tel. 600-840833.  
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 632-700803.  
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 626-722291.  
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Arratsalde, gauz eta asteburuetan. Tel. 658-458061.  
 – Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 654-154301.  
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 602-844282.

– Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko eta umeen etxeko lanak egiteko. Titulua eta esperientzia. Tel. 688-639371.  
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 631-345286.  
 – Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-521520.  
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko asteburuetan. Tel. 688-818176.  
 – Emakumea eskaintzen da etxeko lanetarako eta sukaldari jarduteko. Tel. 657-479770.  
 – Emakumea eskaintzen da interna edo externa. Tel. 631-110716.  
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 638-338816.  
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (11:00-18:00 eta baita gauz ere). Erreferentziak. Tel. 655-677035.  
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 631-143009.  
 – Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta pegorak garbitzeko. Esperientzia. Tel. 632-999079.  
 – Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 663-468691. Marina.  
 – Neska euskalduna eskaintzen da goizez umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 645-723818.  
 – Emakume euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Goizez eta arratsalde. Tel. 629-889465.  
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko asteburuetan. Tel. 631-247899.  
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Ordu-tegi zabalak. Tel. 632-531128.  
 – Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 611-226678.  
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Erreferentziak. Tel. 631-952827.  
 – Emakumea eskaintzen da sukaldari-laguntzaile jarduteko, nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 602-047812.  
 – Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 631-979558.  
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak eta bestelakoak egiteko: lokalak, pegorak, tabernak... Tel. 632-426847.  
 – Emakumea eskaintzen da goizez umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 673-436363.  
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 688-733506.  
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Ordu-tegi zabalak. Esperientzia. Tel. 612-245326.  
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 674-687863.  
 – Neska arduratsua eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 632-291539.

### 4.2. Langile bila

– Sukaldari edo sukaldari-laguntzailea behar da jatetxe baterako. Esperientziarekin. Tel. 620-810120.  
 – Neska euskalduna behar da umeak eskolara eramateko eta etxeko lanak egiteko. 08:00etatik 13:00etara. Tel. 657-799333.  
 – Kamareroa behar da Soruluzen jardana osorako. Tel. 615-750942.  
 – Kamareroa behar da Eibarko jatetxe batean. Bidali curriculum: eibarkafe@gmail.com

– Kamareroa behar da orduka Eibarren. Bidali curriculum: tre@euskalnet.net  
 – Eibarko akademiak ingeleseko irakaslea behar du. Esperientzia ezinbestekoa. Bidali curriculum: irakasleeibarCV@gmail.com  
 – Pertsona behar da jatetxe bateko sukaldari garbiketarako egiteko eta laguntzeko. Tel. 659-539861.  
 – Igeriketa-monitoreak behar dira. Curriculum-a bidali: eibarigerixan@gmail.com  
 – Sukalde-laguntzailea behar da esperientziarekin Eibarren. Bidali curriculum-a I.A. 526 / 20600 Eibar posta-kutxara.  
 – Barra eta jangelarako kamareroa behar da esperientziarekin Eibarren. Bidali curriculum-a I.A. 526 / 20600 Eibar posta-kutxara.  
 – Psikologoa behar da Eibarren psikologia eta umeentzako aholkularitza zentro batean. Irailean hasteko. E-maila: gpsimac@gmail.com

## 5. Irakaskuntza

### 5.2. Eskaintzak

– LHko irakaslea naiz eta klase partikularrak emango nituzke, ingelese barne. Prezio onean. Tel. 688-659861. Markel.  
 – Italiara ikasi edo praktikatu nahi baduzu, maila guztietako eskolak eta mintza-praktikak eskaintzen dira Eibarren. Tel. 645-723818.  
 – Klase partikularrak eskaintzen dira LH, DBH eta Batxilergoko ikasleentzat. Tel. 695-749105.  
 – DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.-eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677-592509. Alberto.

## 6. Denetarik

### 6.1. Salgai

– Sehaska salgai, koltxoia eta guzti. Egoera oso onean, gutxi erabilia. 70 euro. Tel. 687-675484.  
 – Sukaldea salgai bonbonak eramatekoarekin. 0'90 zabalera. Gasarena eta labea. Tel. 617-688311.  
 – 3. mailako DBHko liburuak saltzen ditut. Tel. 645-007388.  
 – Egongelako altzari modernoak eta logelako haritz-altzariak salgai. Oso egoera onean. Tel. 658-717754.

### 6.2. Eman

– 2 urteko pitbull txakurra oparitzen da. Marroia, tamaina ertainekoa eta ondo hezitua. Tel. 647-952677.

### 6.3. Galdu/Aurkitu

– Eguzkitako betaurrekoak galdu nituen Arrate egunean, zelaian. Funda barruan daude eta forma karratua dute. Tel. 665-732640.

943 20 09 18  
publizitatea@etakitto.eu

# Zero Kilometroaren Hilabetea Hyundai Oarso Car-en



Tucson GDI 131 cv  
**16.900 €**

i20 Fresh MPI 85 cv  
**8.900 €**



i30 Klass TGDI 120 cv  
**13.500 €**

**OARSO CAR**

HYUNDAI KONTZESIONARIO OFIZIAL BERRIA GIPUZKOARAKO  
WWW.OARSOCAR.COM

**ELGOIBAR**

**OIARTZUN**

Lintzirin Poligonoa, 1  
943 49 48 30

Olaso Polig., 17

**BEASAIN**

Errepide Nazionala, 1  
943 80 40 54

**943 74 14 80**

**IRUN**

Juan Thalamas, 43  
943 63 97 69

**HYUNDAI**



Hyundai Gama i30 5 ate: CO<sub>2</sub> emisioak (g/Km): 94-169. Kontsumo mistoa (l/100 Km): 3,6-7,3.  
Hyundai Tucson Gama: CO<sub>2</sub> emisioak (g/Km): 119-175. Kontsumo mistoa (l/100 Km): 4,6-7,5.  
Kopuru mugatua, stock-a amaitu arteko eskaintza. Finantziarioari lotuta. Baldintzak galdetu: oarsocar.com

## Alemana, frantsesa eta ingelesa

### Ordutegi zabala!

- Maila guztiak
- Mintzamina lantzeko klaseak
- 2 egun astean (aukera ezberdinak)
- 2-3 ordu astean (goizez edo arratsaldez)
- Titulu ofizialetarako prestakuntza: FCE, CAE, Proficiency, DELF, DALF, Zertifikat Deutsch etab.

**2017/2018 ikasturtea urrian hasiko da! Animatu!**

## Industry Language Services

**Informazioa, matrikula eta ordutegiak**

**9 4 3 7 4 4 0 4 0**  
**w w w . i l s . e s**

# ILS

INDUSTRY  
LANGUAGE  
SERVICES



**IMH** FABRIKAZIOAREN  
ZENTRO AURRERATUA  
CENTRO AVANZADO  
DE FABRICACIÓN

# Esku onetan egotearen ziurtasuna.

20.000tik gora paziente pozik.  
Etorri eta egin irribarre berriz ere.



20 urte baino gehiago zurekin.



Profesional talde handi bat zure  
irribarre zaintzen.



Zure irribarre onena geure  
laborategian diseinatzen dugu.



Deitu | 943 70 00 82

bista eder, 19 - bajo 20600 eibar  
[www.bistaeder.es](http://www.bistaeder.es)